

ARGIA



MENDI FEDERAZIOAK 100 URTE

Garai berrietan ere gailurrak arnasmune?

26-31. orrialdeak



***Bi urte espetxean
Polonian,
egoera larrian***

12 | PABLO GONZALEZ



***“Lehenengo Korrikatik
hona, helburuak
ez dira aldatu”***

32 | ANE ELORDI



***“Dena interfaze
batera murrizteak
pobretzen gaitu”***

36 | ADRIÁN ALMAZÁN

egonarrria

Lurrari entzuten dion saioa

Pilpilean diren gaiez elkarrizketak,
Eli Pagolak gidatuta platoan.

Laborarien esperientziak,
Mattin Jauregik jasoak landatik.

Asteazkenero argia.eus-en eta
plataforma guztietan

 ARGIA.eus/podcast

Martxoak 6

Emakume baserritarrak

Alazne Intxauspe
(Etxaldeko Emakumeak)

Martxoak 13

Baratzetik plazara

Onintza Enbeita

Martxoak 20

**Zer da benetako dieta
osasuntsu bat?**

Leire Udabe (Lakari denda)

Martxoak 27

**Zergatik igotzen dira
elikagaien prezioak?**

Juanma Intxaurrendieta



Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOAK
- 07 | EZ HANKA EZ BURU



AZALEKO ARGAZKIA: P. UDAONDORREN BILDUMA / EMMOA

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: CLIPART COURTESY FCIT

Iritziak

- 21 | KARMELO LANDA
- 22 | MALORES ETXEBERRIA
- 23 | ANE LABAKA
- 23 | ARANTZA GUTIÉRREZ
- 24 | BEÑAT IRASUEGI

Finkoak

- 40 | BIZI BARATZEA
- 44 | KOMUNITATEA
- 45 | DENBORAREN MAKINA
- 50 | DENBORA-PASAK
- 51 | KULTUR-KRITIKAK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU



DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

36 | DIGITALIZAZIOAZ ETA ADIMEN ARTIFIZIALAZ

Adrián Almazán *Contra la doctrina del shock* digital liburuaren egilea elkarrizketatu du Urko Apaolazak. Mintzatu dira digitalizazioak ingurumenean duen eraginaz, kolonialismo moduez eta makinak gizakien lanak ordezkatzeak dakartzan ondorioez.

Elkarrizketak eta erreportajeak

14 | NET HURBIL

Nitrogenoaren zikloa berriz orekatzeko ahala dauka laborantzak

Nicolas Goñi

16 | PERTSONAIA | ELENA LAKA

“Paretaren kontra bai, baina kamikazea ez naiz”

Miel A. Elustondo

26 | MENDI FEDERAZIOAK 100 URTE

Mendiaren kulturari eusteko sokak, tenkaturik

Jon Torner

32 | EUSKARA | ANE ELORDI, KORRIKA EKIMENA:

“Bakoitza gure ezberdintasunetatik, baina batzen gaituena euskara da”

Cira Crespo

46 | KULTURA | ATZAR HADI PROIEKTUA

Errobi eta 1970ak omentzeko musika proposamena

Patxi Gaztelumendi


 EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA

 ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZTAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

 KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Jabetza

 Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Erredakzioa

 Ainara Rodil, Amaia Lekunberri,
Axier Lopez, Eneritz Arzallus,
Estitxu Eizagirre, Gorka Peñagarikano,
Jenofa Berhokoirgoien, Jon Torner,
Lander Arbelaitz, Leire Artola,
Manex Moreno, Mikel Garcia, Olaia L.
Garaialde, Onintza Irureta, Pello Zubiria,
Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produkzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametza interaktiboa, S.L.

Lege gordailua: S5 837-2012

ISSN: 0213-909X

Batzorde parekidea: 72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoa

 komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefonoa

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

 Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

 Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA
honako enprekin batera:


Doan eta libre

 ARGIAko edukiak kopiatu,
moldatu, zabaldu eta argitaratu
ditzakezu, gure egiletza aitortu eta
baldintza beretan eginez gero.

 Lizentzia hau baliagarria da
testuentzat eta, argazkien eta
ilustrazioen kasuan, ARGIAren
sinadura daramatenentzat soilik.


 Ekoedizioaren Institutuko
bazkide da ARGIA



Sukarrak jota

Hollywoodeko filmengatik ezaguna zaigu “urrearen sukarra”: milaka lagunexodoa AEBetako mendebalderantz mineralaren distirak erakarrita. Pantailan erakutsi ez dutena da, sukarraldiaren hasieran, 1849an, 150.000 indigena inguru bizi zirela Kalifornian eta 1870erako 31.000 baino ez zirela bizirik geratzen, gizon zurien gaixotasunen eta sarraskien ondorioz. Ia 200 urte geroago, 2023an, Brasilgo Amazonian, 308 yanomami hil dira –28.000 laguneko komunitatea da– urre bilatzaile berriek eragindako gaixotasun, desnutrizio, merkurioaren kutsadura eta indarkeriagatik. Horien erdia lau urtetik beherako haurrak ziren. Lula presidenteak genozidioa dela dio. Yanomamiak “gerra egoeraz” mintzo dira. Mendeak joan, mendeak etorri, ez dugu ezer ikasi (nahi).

📍 Yanomamien familia bat gobernuak haien lurretan ezarritako osasun gune batean. **U. MARCELINO / REUTERS**

 **AXIER LOPEZ**



PABLO GONZALEZ

Inongo frogarik erakutsi barik, bi urte espetxean Polonian

Datorren otsailaren 28an bi urte beteko dira Pablo Gonzalez kazetaria Polonian atxilotu zutela. Errusiako espioia izatea leporatu zioten hango zerbitzu sekretuek, baina oraindik ez dute horren froga edo zantzu ñimiñoena erakutsi.

 XABIER LETONA BITERI

Errusiak 2022ko otsailaren 24an ekin zion Ukrainako inbasioari. 2014tik Pablo Gonzalezek bertatik bertara jarraitu zituen Ukrainako Donetsk eta Luhanskeko gerraren nondik norakoak, baina inbasioaren unean Polonian zegoen, Ukrainako mugako Przemysł herrian. Ukrainako errefuxiatuak milaka iristen ari ziren Poloniarra eta Gonzalez horren berri ematen ari zen.

Dagoeneko Errusiaren inbasioa guttiz egiazkoa zela ondo barneratuta zuen munduak. AEBek hilabeteak zeramatzen esaten hori, eta otsoa eta artzainaren ipuinean moduan, mezuak sinesgarritasuna galduta zuen, baita Gonzalezentzat ere: “Onartzen dut. Ni ere erratuta nengoen. Inoiz ez nuen irudikatu hau gerta zitekeenik, eta are gutxiago horrela”, idatzi zuen gaztelaniaz otsailaren 24an sare sozialetan.

Are gutxiago irudika zezakeen lau egun geroago Poloniako zerbitzu sekre-

tuek atxilotuko zutela bera, Errusiako espioia izatea leporatuko ziotela eta bi urte geroago oraindik Poloniako segurtasun handiko espetxe batean egongo zela epaiketaren zain, bere auziari buruz ezer gutxi gehiago jakinda. Hiru hilabetero luzatzen den sufrikarioa da berea, eta joan den otsailaren 15ean Poloniako epaitegi batek zortzigarrenez kazetariaren kartzelaldia beste hiru hilabetez luzatzea erabaki zuen.

“ERRUSIAREN ALDEKO” KAZETARIAK

Gonzalez hainbat aldiz izan zen Ukraina eta Errusiaren arteko gatazka jarraitzen 2014tik aurrera, besteak beste, Donetsk eta Luhansken bertan. Berarekin sarri joan zen argazkilari Joan Teixeirak dioenez, “guk alde biei ematen genien aho-tsa”. Joan-etorri horien ondorioz, 2016an George Soros magnatearen Open Society Fundazioak “Errusiaren alde” ziren Espainiako Estatuko kazetari, analista edo-

ta irakasleen zerrenda bat egin zuen; oro har, ezkerreko jendea eta inondik inora “Errusiaren aldekoa”, baizik eta ikuspegi kritikoduna, bai NATOrekin, bai Errusiarekin. Teixeiraren esanetan, zerrenda horretatik hasi ziren arazoak.

Urriaren 28an Madrilan emandako hitzaldi batean, Teixeirak kontatu zuen nola Errusiaren inbasioa baino lehentxeago, Ukrainako inteligentzia zerbitzuek Kievera deitu zuten Gonzalez eta Errusiaren finantzapean ari zela leporatu zioten: “Horren froga gisa Gara-rako idaztea edo Laboral Kutxako kreditu txartel bat izatea aipatu zioten”. Ordu-rako Gonzalez kazetari ezaguna zen eta aipatu egunkariaz gain, *Público*, Efe agentzia eta, batez ere, La Sexta telebista katerako kolaborazio lanak egiten zituen. Ukrainako inteligentzia zerbitzuek kargurik gabe libre utzi zuten, eta Teixeirak dioenez, biak egoera nahasian geratu ziren Ukrainan, haien ustez alde egiteko gonbita egin zitelako.



XABIER SAGASTA

Aldi berean, Espainiako zerbitzu sekretuko (CNI) zortzi lagunek Oihana Goirieta Pablo Gonzalezen bikotekidearen eta Kataluniako familiaren etxeetara joan ziren egun horietan, eta jakinarazi zieten familia osoaren mugimenduak gertutik jarraitzen zituztela. “Ez gintuzten galdekatu, ez akusaziorik egin, ezer ez, bakarrik nahi zuten guk jakitea oso kontrolatuak geundela”, dio Goirienak.

Ordoren, Goirienak Gonzalezzi gertatutakoa jakinarazi zionean, egoera katramilatzen ari zela ikusita, erreportariak Euskal Herrira itzultzea erabaki zuen. Hemen, ordea, inork ez zion ezer jakinarazi, ez zerbitzu sekretuek, ez beste inork. Denbora gutxira Errusiaren inbasioa hasi zen eta Gonzalez Europako Ekialdera itzuli zen, oraingoan Polonia-ra, non otsailaren 28an atxilotuko zuten.

“PABLO TXARTO DABIL PASATZEN”

Kazetaria Moskun (Errusia) jaio zen 1982an eta 9 urterekin etorri zen Euskal Herrira lehenik eta gero Kataluniara, bere gurasoak Errusian banandu eta gero. Pavel Rubtsov zen bere errusiar izena –bere aita Aleksei Rubtsov–, baina Bartzelonan bizi ziren jada eta amak Pablo Gonzalez izena jarri zion, errusiar izenaren itzulpena eta bere amaren abizena. Amaren aita 1936ko Gerran Errusiara errefuxiatutako milaka ume haietako bat izan zen. Gonzalezek Nazionalitate bikoitza du, errusiarra eta espainiarra, aspaldi bizi da Nabarnizen (Bizkaia) eta hiru seme ditu Goirienarekin batera, 8, 11 eta 16 urtekoak. Aipatu izenen bikoiztasun hori espioi izatearen froga gisa baliatu dute Poloniako zerbitzu sekretuek. Atxiloketatik bi urte pasatu direnean, ARGIA Oihana Goirieta bere bikotekidearekin mintzatu da telefonoz.

Poloniako segurtasun handiko espetxe batean dute Gonzalez, segurtasun modulu berezi batean, “kartzela barruko kartzela batean, isolatuta”. 23 ordu bere ziegan igarotzen ditu eta ordu batez ateratzen da patiora, bera bakarrik. Hitz egin dezake inguruko beste preso batzuekin, baina ziegatik oihuka.

“Pablo txarto dabil pasatzen”, aitortu digu Goirienak. Pablaren amak, seme nagusiak eta hirurek egin zioten bisita kartzelan iragan ekainean, eta ez zuen ondo ikusi, “hala ere, jasaten duen tortura psikologikoa kontuan hartuta, nahiko ondo zegoen. Bisitan ez zuen erakutsi nahi izan ahuldaderik amaren eta se-



MIKEL OLABIDE ZUZA / ARGIA CC BY-SA

Pablo Gonzalezen egoera salatu eta haren askatasuna eskatzeko ARGIAko lantaldeko kideek bilkura egin zuten Lasarte-Oriako egoitzaren aurrean.

mearen aurrean, baina ez zegoen ondo, eta gutunetan are eta gehiago nabaritzen da hori. ‘*Cómo estás?*’ galdetu nion bisitan [ezin zuten euskaraz berba egin] eta ‘*Estoy*’, erantzun zidan motzean”.

Bisita horrez gain, lehenago beste bakar bat egin zuen Goirienak. Bi urtetan, hortaz, bi bisita. Telefonozko komunikazioa debekatuta dute eta, beraz, bi hilabeteko atzerapena duten gutun bidez elkar komunikatu behar dute: “Madrilgo elkartasun taldekoeen azaroko postalak duela bi aste iritsi zaizkio”.

GOGORRENA, INFORMAZIO EZA

Egoera latza da Gonzalezentzat, eta haren etxekoentzat ere bai. Egun gogorak eta nekosoak dira honakoak, “elkarrizketa eta hitzaldi arteko egunak” Goirienak deskribatzen dituen moduan, “gora eta behera, hau zurrumbilo bat da”. “Gogorrena informazio falta da. Ez dugu helmuga bat: epaiketaren data, behin-behineko espetxealdiko bukaera... Zerbait egunak deskontatzen hasteko. Horrek erantzun bako galdera asko sortzen ditu”, azpimarratzen du etsipenez.

Hasteko, ez dakite zenbat denboraz egon beharko duen behin-behineko espetxealdian, Polonian ez baitago horretarako mugarik. Esan diete lau urte izan ohi direla gehienez, oro har, “baina batzuetan zortzi ere bai. Semeek ere egiten dizkidate galderak, baina nik ez dakit zer erantzun”, dio Goirienak.

Judizialki ere egoera korapilatsua da.

“Gogorrena informazio falta da. Ez dugu helmuga bat: epaiketaren data, behin-behineko espetxealdiko bukaera... Zerbait, egunak deskontatzen hasteko”

Oihana Goiriena

Gonzalo Boyé abokatu ezagunak darama bere defentsa, baina Polonian ere badu abokatu talde bat, han derrigorrezkoa baita hango auzi batean bertako abokatu izatea. Defentsari begira, egoera larriagotzen duen beste faktore garrantzitsua informazio falta da: fiskaltzak ez du zergatik erakutsi behar bere akusazio osoa hasieratik, eta hortaz, Boyék akusazioaren zati bat bakarrik ikusi ahal izan du orain arte, eta haren aburuz, horrek defentsa-gabezia sortzen du.

ESPAINIAKO GOBERNUAREN ARRETA HUTSALA

Espainiako Varsoviako kontsula sarri doakio bisitan Gonzalezi, baina Espai-

niako Atzerri Ministerioko inor ez da oraindik jarri harremanetan bere senideekin. Madrilgo elkartasun taldea zortzi bider zuzendu da ministeriora arreta eskatuz, baina ez du erantzunik jaso oraindik. Harrigarria da hori, kon-tuan hartuta Europako hainbat instituziok kazetariari elkartasuna erakutsi diotela, edota mundu mailako Mugarik Gabeko Kazetarien elkarteak kasua oso larritzat jotzen duela: “Lehen aldia da Europar Batasunean EBko herrialde batek EBko beste bateko kazetari bat atxilotzen duena halako akusazio bategin”.

Eusko Jaurlaritzatik bai jarri dira harremanetan telefonoz Goirienarekin eta laguntasuna, animoak eta babesa eskaini diote, “hori bai, Eusko Jaurlaritzak kanpo harremanetan eskumen oso mugatuak dituela esan zidaten. Ahal dutena egingo dutela ere esan didate, baina ez didate esan zer egin duten”, zehaztu du Goirienak.

Bitartean, Euskal Herriko komunikabide eta kazetari ugari, tartean ARGIAk, Gonzalezen egoera salatu eta haren askatasuna eskatu dute. Atxilotetatik bi urtera, asteazken hone-tan hainbat hedabidetako langileek bilkurak egin dituzte beren hedabideen atarietan, besteak beste aldizkari honetakoek. Hedabide, kazetari, eta giza eskubideen aldeko erakunde ugariaren oihua bat eta bera da: “Pablo askatu!”. ●

Atzerritar



UXUE APAOLAZA LARREA

Eta mugak igarota ere zer, muga azalean geratzen da, eta betirako, etengabe, da atzerritar barruan muga daramana, hain atzerritar, ezen ez duen guztiz pertsona ematen. Ezen hori baino ez dugun ikusten, hemengoa izanik ere bai, askotan, ijtoa bada, adibidez, atzerritarra (mugarik gabea). Guardia Zibila eta atzerritarra. Ertzaintza eta atzerritarra. Boluntarioa eta atzerritarra. Funtzionarioa eta atzerritarra. Beste zuri bat eta atzerritarra. “*Espera ahí: a-hí*” eta atzerritarra. “Itxoin hor” eta atzerritarra, “*que es-pe-res a-hí*”. Gurasoa eta atzerritarra. Leihatilakoa eta atzerritarra. Bizilaguna, hori ez, hori ere atzerritarra, atzerritarra eta atzerritarra. Parkean ere gero eta atzerritar gehiago, parke horretan, ez bestean. Bi baino gehiago izaten hasi ziren, eta... Eskolan ere bai. Umea eta *MENA*, atzerritarra. Dendaria eta atzerritarra. Medikua eta atzerritarra. Administraria eta atzerritarra. Gorroto duena eta atzerritarra. Irakaslea eta atzerritarra. Eta, agian, hemen jaio da, baina atzerritarra. Adineko gizon-emakumeak eta atzerritar gaztea. Langileak eta atzerritarra, garbitzailea, atzerritarra. Hemengoa eta atzerritarra. Bi atzerritar, hiru atzerritar, lau atzerritar... atzerritar uholde bat. Segurata eta atzerritarra. Nire etxea eta atzerritarra. Barkatzen duena eta atzerritarra. Nahiago ditut hangoak, ez beste hangoak, atzerritarrak. Langileagoak dira. Ezaguna eta atzerritarra. “Nik ezagutzen dut atzerritar bat” eta atzerritarra. “Familiakoa bezalakoa da” eta atzerritarra. Fidatzekoa eta atzerritarra. Zu (?), ni, eta... ●



Politika

Trafikoaren eta Segurtasunaren eskumena Nafarroaren esku uzteko dekretua atzera bota du Espainiako Auzitegi Gorenak, Guardia zibilen Jucil elkarteak jarritako helegiteari tiraka. Maria Chivite lehendakariak esan du Foru Hobekuntza aldatuz eskuratuko duela Nafarroak eskumena.

Polizia

Jada hiru gaztek salatu dute Ertzaintzak zauritu zituela Tolosako inauterietan. Josu Erkoreka Jaurlaritzako Segurtasun sailburuak, baina, foam jaurtigailuaren aztarnak agertu diren arren ez du onartu Ertzaintzak erabili zituenik eta zalantzan jarri du Ertzaintzak Villabonako gaztea zauritu izana.

Musika

EHZ festibalaren 28. edizioa aurkeztu dute. Musika jaialdia Irisarritik Amikuzeko Arberatze herrira aldatuko da, ekainaren 28, 29 eta 30ean. Ohiko eredia mantenduta, musikaz gain bestelako jarduerak ere antolatuko dituzte (mintzaldiak, mahai-inguruak, tailerrak, hauren txokoa, zirkua...).

Komunak



ULA IRURETAGOIENA

Otsaila da iaz ekoiztutako pelikula uzten sari banaketaren hilabetea. Zinemara joateko aitzakiarekin, arkitektura eta hiria oinarri dituen Wim Wenders-en *Perfect Days* ekarri nahi dut hizketaldira.

Pelikularen sinopsi zabalduan irakurri daiteke komun publikoetan garatzen dela pelikularen trama. Tokyoko Udalak martxan jarritako 17 Tokyo Toilets arkitektura-programa hartzen da eszenatokitizat: Japoniako arkitekto ezagunek komun publiko bat diseinatu zuten. Eraikin hauetan txisa eta kaka egiten da, gorputzaren garbiketarako beste leku publiko batzuk daude, eta gaiak beste artikulu baterako ematen du. Pelikulan erakusten diren komun publikoen arkitektura ez da Japoniako komun-arkitekturaren lagin esanguratsua, baina programaren ekintzak bai azpimarratzen du publikotasunaren ulermen japoniarra. Mendebaldeko hirietako komun publikoetako esperientzia konpartitua izaten da gaizki usaintzen dutela, zikin daudela, ez dagoela paperik, puskaturik daudela. Filmaren protagonista gisa komun publikoaren garbitzaile maskulino bat jarzteak hainbat irakurketa eragin ditzake, Mendebaldeko eta Japoniako kulturetan desberdinak. Komunari, publikoari garrantzi sakratua ematen dio Japoniak.

Komun publikoa izan zitekeen kaleen diseinuaren eraikin-altzari orokortuagoa, mimoz pentsatua eta non egon behar duen planifikatua. Komunera joatea eskubide gisa ulertzen badugu, komun publikoek kokaturik egon beharko lukete erradio jakinetara, zauden lekuan zaudela, gehienez 10 minutuko ibilaldian bat topatzeko. Gure testuinguruan topa daitezkeen komun publikoak gutxi dira eta diseinu industrializatu eta estandarra izaten dute, lekukotasun identitariorik gabe. Baina berdin gertatzen da haurrentzako jolas parkeekin. Publikoaren definiziorako hain esanguratsuak diren bi arkitektura katalogoko diseinuarekin ebazten ditugu, existitze hutsagatik eskerak emanez. ●



WIKIPEDIA / GERRA IMPERIALEN MUSEOA

Ukraina EAeko kanpaina

XABIER LETONA BITERI

Bi urte joan dira Errusiak Ukraina ofizialki inbaditu zuenetik eta denak adierazten du Errusiak lortu duela aurrea hartzea Ukrainari. Errusia gai izan da gerra industria baliatzen herrialdeko ekonomia haizatzeko, bere baliabide energetikoei beste aterabide bat bilatzeko eta -egurra eta azenarioa eskuan- gizarte errusiarraren zati handi bat gerraren bueltan kohesionatzeko.

Oraindik luze joko ei du gerrak eta bi herrialdeek odolusten jarraituko dute, baina Ukraina Errusia baino gehiago. Gerraren luzeran, gainera, zerikusi handiagoa izan dezake urte bukaeran AEBetako hauteskundeetako emaitzak, bateko tanke eta besteko droneak baino. Ukraina dagoeneko Mendebaldearen oso menpekoa da -ia 200.000 milioi euroko dirulaguntza jaso du bi urteotan AEBetatik eta EBtik-, eta gerraren luzatzeak are eta menpekoago bihurtuko du. Errusia, aldiz, bera ari da bere burua finantzatzen bere baliabideekin, baliabide humano gehiago ditu eusteko, eta gerra industria askoz garatuagoa du. Haizea eta denbora bere alde ditu negoziazio mahaian indartsu agertzeko, inork ez baitu zalantzarik gerra negoziazio mahaian bideratuko dela.

Ez dakigu nola bukatuko den gerra, baina badakigu, oster, Europan izaten ari den eragina itzela dela, eta izango duela datoen urteetan, batez ere estatuen berrarmatzea oraindik ez dakigun neurriraino bultzatuko duelako: 2014an EBko estatuek 197.000 milioi euro inguru gastatu zuten defentsa politikan, gaur egun, 350.000 bat milioi. Aurrekontuaren gutxienez %2 gastu militarrean bideratzea eskatzen die NATOk bere kideei, gehienak hortxe dabilta jada, Polonia %4an dago adibidez, eta Alemaniak dio %3,5 gastatuko duela. Gerretan batzuek asko galtzen dute, eta beste batzuek asko irabazi.

Gastu militarrek goranzkoa hartzen duenean, gastu sozialak behera egiten du. Eta alderantziz. Hori argi ikusi zen Bigarren Mundu Gerraren ondorengo Europan. Horrela finantzatu zen Europako mendebaldean gastu soziala, bereziki 1945-1975eko "hiru hamarkada loriatsuetan", langileek Europan inoiz ezagutu duten garai berdinzaleenean. Neoliberalismoak 1970eko hamarraldian gizarte kapitalistaren gidaritzat hartu zuenetik, aldiz, kontrako norabidean goaz apurka. 2008ko krisiak erakutsi zuen ondoen hori. Indar neoliberalenak pixka bat erlaxatu ziren pandemia ostean, baina bueltan datoz, euren austeritate politikak eta gastu sabaiak lehen lerroan jarrita. Ataka horretan, hortaz, nekez pentsa daiteke pentsioak, osasun eremua eta ingurumena gogotik sufritu barik aterako direnik atake berri honetatik.

Alegia, politika sozialen aldeko apustu ahalik eta sendoenak eta irmoenak egin beharko direla epe ertainera begira. Beraz, apirilaren 21etik aurrera nork bultzatuko ditu hobeto horiek Eusko Jaurlaritzatik: orain arteko EAJ-PSE bikoteak, EH Bildu-PSE-Sumar-Podemosek edo EAJ-EH Bilduk? Beste aukerarik ez dago. Gero, kontua izango da zein eratako presioa egiten dien kaleak batzuei edo besteei, politika sozialak ahalik eta indartsuenak izan daitezten. ●

Langile publikoek euskara egiaztagiria “errazago” eskuratzeko dekretua

LEIRE ARTOLA ARIN

Euskararen normalizaziorako dekretu berria onartu du Eusko Jaurlaritzak, eta helburua da “euskara zigor eta oztopo gisa ez ikustea” lanpostu publikoetan. Duela 26 urte ezarritako Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko 86/1997 dekretua da eguneratu duena.

EAEko sektore publiko guztiko lanpostuei eragingo die, eta azpikontratutako enpresetako langileei ere bai – langileak euskalduntzeko ardura hartu beharko du kontratatzaileak, gutxienez-. Salbuespenak daude, halere. Hizkuntza eskakizuna betetzeko aukerak “malguago eta errazago” jartzea da legearen helburua. “Atxikimenduarekin dagoen arazoaren” aurrean, “euskara zigor eta oztopo bezala ez ikustea” lortu nahi du Jaurlaritzak. Euskararen erabilera sustatzeko helburua du dekretuak, betiere “gatzelaniaren kaltetan izan gabe”.

HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntza eskakizuna lortzeko bide gehiago zabalduko dituzte: lanpostuan euskara “modu frogagarrian” erabiltzen duenak eskakizuna eskuratzeko aukera izango du; oposizio azterketa euskaraz eginda, aparteko euskara azterketarik edota ziurtagiririk gabe, hizkuntza eskakizuna lortzea posible izango du. Beste berrikuntzetako bat da oposizioa euska-

“Egiaztagiria daukan langile kopuru handia izan dezakegu, euskaraz lan egiteko gai ez dena”

raz edo azterketaren zati bat euskaraz egitea eskatu ahaliko duela administrazioak, lanpostu hori betetzeko behar izanez gero. Baldintzak zein diren argitzeke dago oraindik, baina dekretuak jasotzen duenez, tokian tokiko egoera soziolinguistikoaren arabera moldatuko dira betekizunak.

Bestalde, hizkuntza eskakizuna desberdina izan liteke ahoz edo idatziz, “lanpostuaren beharren arabera” maila desberdina eskatuko da batean edo bestean. Profil linguistiko asimetrikoak deitu diete horiei. Profil simetrikoak izango dira ahoz eta idatziz maila bera egiaztatu beharko dutenak.

45 URTETIK GORAKOAK, SALBUETSITA

Euskararen normalizaziorako dekretuak zenbait salbuespen jasotzen ditu, administrazio publikoan lan egiteko hizkuntza eskakizunik bete beharko ez dutenak.

Ondorengo hauek dira: 45 urtetik gorakoak; hezkuntza maila jakin bat ez dutenak –Batxilergoa, Oinarritzko Hezkuntza Orokorra edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza–; “euskara ikasteko zailtasuna duten” eta desgaitasunen bat duten pertsonak; helduei zuzendutako prestakuntza-programen bidez hizkuntza bat ikasteko “trebetasun gabezia nabarmena eta egiaztatua” duten pertsonak.

Legeak bederatzi urteko epea zehazten du herritarrei euskarazko arreta bermatzeko. Halere, jakiteke dago ea dekretua betearazteko zein bide zehaztu diren, eta zein oztopo izango dituen, kontuan hartuta azken urteko euskararen aurkako oldarraldi judiziala.

KRITIKA UGARI

Euskalgintzatik eta sindikatuetatik kritika egin diote dekretuari. Euskalgintzaren Kontseiluaren esanetan, “jauzi sendoagoa” emateko baldintzak daude, baina “uko” egin zaio. “Anbizioz jokatu eta oldarraldi judizialak ezarritako mugak gainditu beharrean, epaitegiek ezarritako murrizketak islatu dira dekretuaren azken bertsio honetan”. Udalerrri Euskaldunen Mankomunitate UEMAK “aukera galdutzat” jo du eta, esaterako, uste du dekretuak ez duela administrazioa “behin betiko” euskalduntzeko neurriarik ekarriko. LABeko Urko Aierbek salatu duenez, “Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak dekretuaren hasierako bertsioetan euskarari lehentasuna eman ahaliko zitzaiola esplizituki jasota zeukan, eta aipamen horiek desagertu egin dira”. Adibide kezagarria ere jarri du: “Egiaztagiria daukan langile kopuru handia izan dezakegu, euskaraz lan egiteko gai ez dena”. ELArentzat berri txarra da dekretua: “Egun gatzelaniazko ezagutza derrigorrezkoa da lanpostu guztietan; euskararen ezagutza administrazioan bermatzen ez duen indizeari, ordea, eutsiko dio Jaurlaritzak. Edozein administrazioak helburu izan beharko luke diskriminazio egoera hori gainditzea, baina Eusko Jaurlaritzak uko egin dio hizkuntza eskubideak parekatzeari”. ●



Gortina ixten



DIANA FRANCO


Segurtasun eta pribatutasunaren ideiak azaltzeko pertsona nagusiekin ondo dartzokidan analogia bi atea eta gortina dira. Atea giltzaz ixtea segurtasunarekin lotzen dut, etxea den edukiontzian inor ez sartzeko moduarekin. Gortina ixtearena pribatutasunarekin lotu ohi dut, gortina itxita inork ez dezan zure etxean gertatzen dena zelatatu. Mugikorrek mundura zabalduetako leihoak bailiran saldu dizkigute, baina, hori gezurra ez bada ere, gure bizimoduak aztertzeke gailu bilakatu dira. Zelataritzaren negozioa bultzatzeko pribatutasunaren beharra ezabatu nahi da gure mundu ikuskeratik, egiten dugun oro kontrolpean izateko (zer jan, norekin harremandu, zer pentsatu, zer egin...) aplikazio bidez kudeatzeko beharra eta balioa sortuta. Informazioa jasotzeko iturria aldatu da (gailuak), baina helburuak berdina izaten jarraitzen du: pertsonen buruetan zenbait produktu, zerbitzu edota ideia kontsumitua goak izateko abantailak sortu.

Horregatik, mugikorrek ekartzen dizkiguten onurak baliatu eta mehatxuak murrizteko bidean segurtasuna eta pribatutasuna handitzea oso gomendagarria da. Lan hau, ordea, gero eta zailagoa da, gure gailu sofistikatuak kanpo informazioa jasotzeko dituzten sentzore ugariengatik: girokopioa (gauden lekua kokatzeko), argi sentzorea, mikrofonoa, kamera, hatz-aztarnen sentzorea, magnetometroa (iparrorratza), barometroa, infragorrien sentzorea (bero iturriak, adibidez gorputzenak, kokatzeko), bihotz-maiztasunaren sentzorea... Erabiltzen ditugun aplikazioak sentzore horietako batzuk behar izaten dituzte euren egitekoaren arabera funtzionatzeko. Ditugun aplikazioak tresnak badira, sentzore hauek hartzen duten informazioa gure mugikorretan geratuko da, ditugun aplikazioak zerbitzuak badira hirugarren batek jasoko du informazio hori.

Zelan kudeatu mugikorrean pribatutasuna orduan? Ez da erantzun bakarreko galdera, bakoitzaren beharrak aztertu behar baitira. Hasteko, ondo erabaki benetan behar dituzun zerbitzuak, behar ez dituzunak kendu, eta geratzen diren aplikazioetan, horiek zure zentsoreetara dituzten baimenak kudeatzu has zaitezke. ●

Frankismoak errepresaliatutako emakumeen izenez jantziko da Txantrea

OLAIA L. GARAIALDE



1. Pl. Julia Fernández Zabaleta
2. c/ Dora Serrano Serrano
3. c/ Aurora Gómez Urrutia
4. c/ M^a Luisa Elio Bernal
5. c/ Josefina Guerendiain Caro
6. c/ Nemesia Baztán Turrau
7. Pl. Ramona Zapatero Zapatel
8. c/ Matilde Huici Navaz
9. Pl. M^a Carmen Húder Carlosena
10. c/ Julia Bea Soto

Hiru urteko lanaren emaitza jaso du orain Iruñeko Udalak sinatutako dekretuak. Auzotik sortutako ekimenari esker, zazpi kale eta hiru plaza izendatuko dituzte.

Julia Bea Soto, Dora Serrano Serrano, Aurora Gómez Urrutia, Julia Fernández Zabaleta, María Luisa Elio Bernal, Josefina Guerendiain Caro, Nemesia Baztán Turrau, Ramona Zapatero Zapatel, Matilde Huici Navaz eta María Carmen Húder Carlosena. Horiek dira Iruñeko Txantrea auzoko kaleei eta plazeei izena emanen dioten frankismoak errepresaliatutako emakumeak.

Duela hiru urte, Hego Txantreako hirigintza plana egiten ari zirenean, auzoko bizilagun talde batek emakumeen memoria historikoari espazio publiko eskaintzea proposatu zion Emakumeen Udal Kontseiluari. Horregatik, Iruñeko Udalak,

ikerketa bat egiteko eskatu zion NUP Nafarroako Unibertsitate Publikoari. Horren emaitza zazpi kale eta hiru plaza dira.

Zalao Basabe Berdintasuneko, Ekintza Komunitarioko, Auzoetako, Herritarren Partaidetzako eta Euskarako zinegotziaren arabera, kale-izendegia ez da soilik hiriaren antolakuntza urbanistikoa ulertzeko mapa edo gida bat: "Izendegian agertzen diren kaleen, eraikin publikoen eta plazen izanei esker, tokian-tokiko historian eragina izan duten pertsonaiak eta gertakariak ezagutu ditzakete herritarrek".

Horrekin batera, espazio publiko hartu izana berdintasunera bidean egindako beste urrats bat dela nabarmendu du: "Emakume hauek ekarpen bikoitza egin dute ikusgaitasunik eza bikoitza pairatu dutelako; emakume izateagatik eta frankismoarengatik". ●

1

Datorren ikasturtean ere, Iruñeko haur eskola bakarrean baino ez da egongo euskarazko murgiltze eredu.

Iruñeko auzo guztietako haur eskoletan murgiltze eredu ezartzeko eskatu dío euskalgintzak udalari. Duela 35 urteko egoera berean daudela salatu du.

4.803

milioi euroko irabazi garbia izan zuen Iberdrolak 2023an. %10,7ko igoera izan du, aurreko urtearekin alderatuta.

10

LGBT pertsonatik 9k sekretuan mantentzen du bere sexu-joera laneko nagusien aurrean, eta 4tik 3 ez da armairutik ateratzen lankideekin, Espainiako LGTBI+ Federazioak emandako datuen arabera.

“Instituzioek ez dute greba feminista orokor bat egin izana baloratzen”

AINHOA OLASO

Denon Bizitzak Erdigunean plataforma feministak salatu du zaintza sistema publiko eta komunitarioaren aldarria plazaraturik dutela, instituzioen partetik ez dutela “neurriko erantzunik” jaso.

ARGIA.EUS (2024-02-21)



“ABIADURA HANDIKO TRENK GABEKO NAFARROA POSIBLE DA”

JULIO VILLANUEVA

“Etsipenean” erori gabe eta “atsekaberik” gabe Nafarroan abiadura handiko trenea gelditu daitekeela adierazi du Euskalerrria Irratian egin dioten elkarrizketan.

2024-02-21

“Instituzioak asko okertuko dira Martxoak 3 elkartearen eta Memoria Gararen ginetik pasatzen saiatzen badira”

NEREA MARTINEZ

Martxok 3 elkarteko kidea:

“Gasteizko sarraskiaren salaketa bizirik mantendu duten herri adierazpenen espazioa eraiki behar dugu”.

ARGIA.EUS (2024-03-02)



DESOREKATURIKO NITROGENOAREN ZIKLOA BERRIZ OREKATZEKO AHALA DAUKA LABORANTZAK

lazko irailean, *Science Advances* aldizkariak argitaratu zuen *Earth beyond six of nine planetary boundaries* (Lurrak bederatzi muga planetarioetarik sei gainditu ditu), planetaren mugen gainditzearen eguneraketa eginez. Jada gaindituak dira berotegi efektua, ur gezaren erabilera, lur azalaren erabilera, bioaniztasuna, kutsadura kimikoa, eta ziklo biogeokimikoak (fosforo eta nitrogenoarenak). Azken hori, jadanik gainditua zen ikerketa honen lehen bertsioan (2009an) eta laborantzarekin zerikusi handia du.

 NICOLAS GOÑI

Karbonoaren zikloa bezala, nitrogenoaren zikloa landare biomasa oso lotua zaio. Ekosistema lurzarretan, landare biomasatik lurrera eroritako hosto eta bertzelako landare hondarrek lurzoruko nitrogeno organiko erreserba elikatzen dute. Lurzoruko izakien bidez (onddo, bakteria, zizare eta bertze hainbat) nitrogeno organiko hori mineralizatzen da, eta hazten diren landareen sustraiekin nitrogeno mineral hori hurrupatzen dute. Zikloaren zati nagusi horri gehitu behar zaizkio animalien landare kontsumoa eta digestioaren ondotik zein hil ondoren lurrera itzultzen dutena; lurzoruan gertatzen diren nitrogeno mineral galerak; eta horiek konpentsatzen dituen nitrogeno harrapaketa atmosferatik, lekadunen bidez.

Aldiz, karbonoaren zikloarekin alderatuz, nitrogenoaren zikloa askoz gutiago konektatua da atmosferarekin: egoera gehienetan %5 inguru baizik ez dator atmosferatik lekadunen bidez, zikloaren gehiena landareetan eta lurzoruan gertatzen delarik. Horren ondorioz, tokian tokiko galerak emendatuz gero lekadunak ez badira konpentsatzeko gai, orduan lurzoruaren emankortasuna apalduko da. Galera horiek oso erraz gerta daitezke, amoniakoa, nitrogeno protoxidoa eta nitratoa oso mugikorrek baitira, lehen biak airean eta azkena urean.

LABORANTZA INDUSTRIALAK ZIKLOA SAKONKI ERALDATU DU

Laborantza sistemetan, nitrogenoaren zikloa irekia da: uza bakoitzean nitrogenoaren zati bat sistematik kendua da eta horren konpentsatzeko ongarria gehitzen zaio lurzoruari. Fertilizazioa Europa mendebaldean abereen gorotzaren bidez egin ohi zen nagusiki. Lur bereziki emangaitzeko eskualdeetan – landak adibidez, gaurko pinudi handia landatu aurretik – gorotzaren ekoizpena zen abereen lehen funtzioa, haragia edota artilea azpiproduktuak zirelarik.

XVII. mendetik aurrera garatu zen lekadunen erabilera errotazioetan, lurrraren emankortasuna hobetuz eta azalera beharrak murriztuz. 1820ko hamarkadatik aurrera, Peruko ugarteetako itsas txori gorotza esportatzen hasi ziren Europara, bertako laborantzaren etekinak emendatuz. Baina aldaketa handiena XX. mendean gertatu zen, ordurarte lekadunek bakarrik lortzen zutena Fritz Haber kimikari alemaniarrek lortu zuenean: aireko nitrogenoa ongarri bihurtu.

Bortz urte geroago, BASF enpresako Carl Boschek Haberren aurkikuntza maila industrialera inplementatu zuen. Halere, lekadunek ez bezala Haber eta Boschek erregai fosil kopuru handiak behar zituzten erreakzio kimiko horretarako, hau da, aireko nitrogenotik eta hidrokarbonoen hidrogenotik amoniakoa sortzeko. Amoniakoa, berriz, ongarriak

eta lehergaiak ekoizteko erabiltzen zen. Lehen Mundu Gerran Alemaniak sektore hori azkarki garatu zuen: 1913an lehen kimikaguneak 11.000 tona ekoitzi zituen, 1917an bigarren bat eraiki zuten, 36.000 tona ekoitzi zituena eta ondorengo urtean 160.000 tona zituzten ekoitzi. Gerra eta gero, lantegi horiek berek –eta munduan zehar eraikitako antzeko hainbatek– ongarri sintetikoak masiboki ekoizten hasi ziren. Ordutik aurrera, polikultura eta lekadunen erabilera zaharkituak bilakatu ziren, eta laborantzaren industrializazioa eta espezializazioa hasi ziren. Alfred James Lotka populazio dinamikaren teoriariak 1924an zioen gizateriaren historian aro berri bat ireki zela. Garai hartan "antropozeno" hitza erabiltzen ez bazen ere, aldaketaren munta sumatu zuen.

ANTROPOZENOAREN NITROGENOAK ITOTA

Lotkaren komentariotik mende bat geroago, nitrogenoaren ziklo biologikoak airetik harrapatzen duen nitrogeno kopurua baino handiagoa da ongarri sintetikoek biosferan sartzen dutena. Aldaketa erraldoi hori ez da noski albo-kaliterik gabe gertatzen ari, lurzoruan gertatzen diren nitrogeno mineral galerei dagokienez. Eta galera horiek masiboak dira ongarri sintetikoak erabiliz gero.

Arrazoiatarik bat dugu galerak ez direla ongarri erabilerari proportzionalak, baizik eta proportzionalki handiagoak direla ongarri kopuru handiagoak erabi-



N. GONI

LEKADUNEN GARRANTZIA Babak, berte lekadunak bezala, ezinbertzekoak dira laborantzak behar duen eraldaketa globalean: lurzoruko nitrogenu organiko erreserba emendatuz ongarri beharrak murrizten dituzte, eta beren proteinei esker haragi kontsumoaren jaistea errazten dute.

liz gero. Bertzela erranik, nitrogenoaren eraginkortasuna beheiti ari da ongarri kopuruaren emendatzearekin. Horrez gain, landareek hurrupatzen ez duten nitratoa lurpeko uretara, erreketara eta itsas bazterretara isurtzen da, uren edan-garritasuna eta ekosistemak andeatuz. Soberan dagoen amoniakoa ere atmosferara isurtzen da, gure osasuna kaltetuz.

Muga planetarioak zehaztu dituen taldearen arabera, nitrogenu soberakin horrek urtean gehienez 60 milioi tonakoa beharko luke izan, eta gaur egun 190 milioi tonakoa dugu. Horregatik, Nazio Batuek eta Europar Batasunak 2030erako nitrogenu galerak erdiz murrizteko xedea iragarri dute. Baina arazo potolo bat dugu: laborantza industrialetik atera gabe, ongarrien eraginkortasua hobetze-

ko eta nitrogenu galerak murrizteko modurik onena dugu ekoizpen murrizketa, bertzelako doitzeek –lurzoruetan nitrifikazioa eragozte, barietateen hobetzea, ongarriztatze zehatzagoak egitea– bazterreko eraginak baizik ez baitituzte.

Baina nor da gaur egun ekoizpena murrizteko prest, azken bi urtetan zerealen merkatu globalean izandako tentsioekin? Nola elikatu laster 10.000 milioi izanen garrenak, ondorengo belaunaldien bizien baldintzak kolokan jarri gabe? Laburbilduz, hiru altxapimaren arabera: errotazioetan lekadun gehiago ezarriz (horrela lurzoruko nitrogenu organiko erreserba igotzeko); laboreak eta hazkuntza birkonektatuz (abereak tokiko bazkaz bakarrik elikatuz eta haien gorotza soroetan baliatuz); haragi kontsumoa nabarmen jaitsiz eta zuhai-

nen ordez giza kontsumorako laboreak ezarriz (lurren erabilera eraginkorragoa izateko asmoz). Konklusio horiek ematen ditu *Methodology for designing a European agro-ecological future* (Europar etorkizun agroekologikoa diseinatzeke metodologia) ikerketa berriak. Ilustrazio paradigmatico bat hartzeagatik: ongarri sintetikoek ekoizturiko zuhain artoa hazkuntza industrialearako abereen bazkarako esportatzeko ordez; garia, txitxirioa, babak, patata eta hirustak landatu, landu ezin diren inguruko lurretan sasi ardiak bazkarazi, haien gorotza baliatu eta haragia asteburuko apairuetara bakarrik bideratu.

Zoritxarrez, nitrogenu soberakinak murrizteko aukerak ez dira asko, baina zorionez, aukera horiek martxan ezartzearen abantailak anitzak dira. ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

zinkunegioptika.com



Elena Laka

ABOKATU EUSKALTZALEAREN AJEAK



PARETAREN KONTRA BAI, BAINA KAMIKAZEA ERE EZ NAIZ, BESTELA EZINGO NUKE LAN EGIN



Euskaltzaleen Topaguneko presidente izan zenean ezagutu zuen iritzi publikoak. Hedabideetan ere hortxe dabil batean eta bestean kolaboratzen. *“Elena Laka. Elena. Elenalaka. Elen. Helen. Ama. Letrada. Señora Laka. Horretxei erantzuten diet. Horretxetatik abiatzen naiz”*; zioen Eibar.org-ek egiten zuen aurkezpenak.

 MIEL A. ELUSTONDO  ZALDI ERO / ARGIA CC BY-SA

Jasone Osororen Arrakasta (Elkar, 2023) liburua irakurri berritan harrapatu nau zure elkarrizketak. Liburu horretan, Harkaitz Canok esaten du harrotasun absurdoagatik ikasi zuela Zuzenbidea...

Nire kasuak ez du Harkaitz Canorenarekin zerikusirik. Harkaitz, besteak beste, ondoko hamarkadakoa da. Ni 1966an jaiotakoa naiz. Harkaitz Canok liburu horretan esaten du, oker ez banago, aita abokatua zuela, eta ama irakaslea. Nire kasuan, aita torneroa nuen, eta ama, berriz, etxekoandrea, beti langintzaren batean ziharduena. Gure familian uni-

bertsitatera joan den lehen pertsona naiz. Nire gurasoek ikusi zuten ikasle ona nintzela, unibertsitate ikasketak ere egin behar nituela, eta niri, berriz, Zuzenbidea egin behar nuela sartu zitzaidan buruan, hura zer zen benetan jakin gabe. Ikasi egin nahi nuen, eta familiaren bultzada izan nuen.

Zerk eraman zintuen Zuzenbidea ikastera?

Ez dakit, bada! Ez nuen abokaturik eza-gutzen, adibidez. Ni langile auzoan jaiotzen nintzen, Urkin, eta han ez zegoen ez abokaturik ez unibertsitatean ibilitakorik.

Zergatik Zuzenbidea? Ez dakit. Edo filmak, edo liburuak, edo ez dakit zer izan zen, baina beti izan nuen abokatu ikastea gogoan, eta ikasi nuen, eta gustatu egin zitzaidan. Bestelako zerarik gabe, alegia.

Jaioterrian jarri zinen lanean, Eibarren, eta 30 urte baino gehiago daramatzazu lanean...

1992ko urtarrilean kolegiatu nintzen, otsailean hasi lanean... 32 urte!

...eta, lanean hasteko garaian, lagunen artean-eta abokatu txartela banatzen ibili omen zinen, bezero bila.



Elena Laka Muñoz

EIBAR, 1966



Abokatu euskaldun euskaltzalea. Donostian egin zituen Zuzenbide ikasketak, EHUren fakultatean, eta Eibarren du bulegoa. Herriko Eta Kitto eta Bergarako Jardun elkarteetako kide, eta Euskaltzaleen Topaguneko buru egin zuen 2014tik 2018ra. Hainbat hedabidetan kolaboratu du, zutabeak idatziz nahiz solaskide lanean. Oraingo egunean, Euskadi Irratiko *Faktoria*-n parte hartzen du. 2016an, Eibarren inoiz euskaraz egindako lehen epaiketa gauzatu zuen. Organoa jotzen du, afizioz.

Bai. 30 urte hauetan gauzak asko aldatu dira. Orduan ez zegoen zeure burua ezagutzera emateko sare sozialik ez antzekorik, baina ezagutzera eman beharra neukan, eta lagunen eta ezagunen artean saiatu nintzen. Hasierako bezeroak ingurukoak izan ziren, denak. Zaila izan zen, oso, edo orain zaila izan zela iruditzen zaigu, 24 urte ez dauzkagulako. Garai hartan naturala iruditu zitzaidan. Orain, eskarmentua daukadala, pentsatzen dut: “Ai, ama! Baina zer ibili nintzen ni orduko denboran!?”. Baina gazte zarenean halakorik egiten ez baduzu, noiz egingo duzu, bada?

Ordenagailuak ere badu historia, kontatu ohi duzuez.

Orduan Eibarko abokatuen artean behintzat inork ez zeukan ordenagailurik, eta guk, berriz, bigarren eskuko Macintosh txiki bat inguratu genuen. 114.000 pezeta kostatu zitzaigun. Dirutza! Eta horrela hasi ginen. Oraingo egunetik begiratuta, ausartak izan gine-la ematen du, baina orduan ez genuen pentsatzen ausartak ginen, ez ginen. Egin behar genuela pentsatzen genuen, eta egin genuen. Donostian ari nintzen lanean, funtzionario nintzen hango udaltxean, baina utzi egin nuen, abokatu izateko. Naturala iruditu zitzaidan. “26 urte dauzkat, hemen lanean geratzen banaiz, zer izango da nire bizitza?”. Seguruena, oso bizimodu eroso izango nuen, baina ez nuen nire burua horretan ikusten, eta postua utzi nuen. Horrela gertatu zen.

Inor ez ei da profeta bere lurrean. Zuk, aldiz, jaioterrira itzultzeko hautua egin zenuen.

Errazago iruditu zitzaidan Eibarren lanean hastea, herrian nola-halako sarea neukan eta. Beste lagun batekin batera ireki nuen bulegoa, baina nire bidean gidatuko ninduen baten bat eduki izan banu, bidea irekiko zidan baten bat... beste modu batera egingo nuen, beharbada. Baina ez neukan inor, ez ezer, inguruan ikusten nuena besterik ez. Alegia, nik orain gure semeak ikusten ditut, eta aholkurik eman diezaikegula iruditzen zait, edo, bestela, gure lagun edo ezagunen batekin kontsultatu. Baina gure garaian halako sarerik ez geneukan.

Eibarren beste abokaturik izango zen...

Bai, baziren beste bulego batzuk. Gure garaian, fakultatean hasi ginenean, unibertsitateari “langabetuen fabrika” esaten zitzaien. Sekulako langabezia zegoen, eta bakoitzak ahal izan genuen tokian bilatu behar izan genuen lana. Batzuk geure bulegoak irekitzen hasi ginen, orain ez bezala, ze orain abokatu gazte gutxik irekitzen dute beren bufetea, nahiago dute inoren bulego handian lanean hasi. Niri, aldiz, errazagoa iruditzen zait nor bere bulegoa jartzea, gaur egun batez ere, sare sozialak ere aukeran hortxe daudelako. Abokatu gazteek, berriz, ez dute bide hori hartzen. Egia da, hala ere, guk bide hau hartu genuela, besterik ez geneukalako.

Donostian ikasi zenuen Zuzenbidea... Ordurako bazen euskarazko lerrorik?

Eeeeez! Kar-kar... Ezta pentsatu ere! Hogei ikasgai baino gehiago izan genituen karrera osoan, eta bakarra izan genuen euskaraz, Ekonomia, Baleren Bakaikoa irakasle. Eta Zuzenbide administratiboko praktikak ere –oso gauza txikia–, euskaraz izan genituen.

Iñaki Agirreazkuenaga izan genuen irakasle. Oraindik orain, Gabonak aurretik, abokatutzako masterrean eskola eman eta gero, Iñaki Agirreazkuenagaren txanda! Kar-kar... “Nire irakaslea izan zinen”, esan nion. Eta berak: “Orain dela 30 urte?”.

“Gehiago!”. Kar-kar... Ekonomia eta Zuzenbide administratiboko praktikak, besterik ez genuen euskaraz ikasi.

Zer giro zenuten Eibarren?

Eibarren dena zen erdaraz. Gure inguruan, gutxienez. Gure auzoan oso jende gutxik egiten zuen euskaraz. Baina aita oso euskaltzalea da. Deban jaioa da, lanera Eibarrera etorritakoa. Ez zigun euskararik sartu, berak euskara natural-natural transmititu zigun. Sekula ez digu esan: “Euskaraz!”. Ez. Berak beti euskaraz egin digu. Askok gustatzen zaio politikaz-eta hitz egitea, gai sozialen gainean jardutea, bateko eta besteko taldeetan parte hartzea...



eta beti euskaraz hitz egiten du, talde guztietan, eta gai guztiei buruz, beti euskaraz, eta horixe transmititu digu guri. Eta amak ulertu egin du hori, eta etxean euskaraz eta erdaraz hitz egin dugu beti.

Etxean euskaraz eta erdaraz, amak euskaraz ez zekielako...
Ez daki!

Ez daki.
Ezer ez.

Amak ez, aitak bai...

Begira, ikastolara hasi ginenean, 1970ean, han ikaslearen eskolatze-libururik ere ez zuten ematen. "Ume hauek ikastolara hasiko dira!", esan zuen gure

aitak; neba eta biok, esan nahi zuen. Eta gure amak, gaztelaniaz: "Ikastolara? Euskaraz badakite-eta!". Gure aita hitz gutxikoa da, eta esan zuen: "Baina ez da gauza bera". Eta ikastolara! Baina esan dizut, amak ez daki euskaraz ezer, "txakurra", "maittea" eta halako hitz batzuk izan ezik. Eta, hala ere, oso harro dago gu euskaldunak garelako.

Zuzenbidea gaztelaniaz ikasi arren, euskaraz gauzatzen duzu jarduna; ahal denean, behintzat...

Baina nire lana erdaraz da, gehiena. Bezeroa etortzen denean, beti eskaintzen diogu zerbitzua euskaraz. Euskalduna naiz, eta euskaltzalea, eta bezeroari lehenengo hitza euskaraz egiten diogu beti.



BERGARA

"Eibartarra naiz, baina Bergaran bizi gara, senarra hangoa dut eta. Eibar baino askoz euskaldunagoa da Bergara. Umeak haztea ere errazagoa da han. Zazpi urterekin patinetea hartu eta trankil irten daitezke kalera. Eta han jasotzen duten euskara ez zuketean Eibarren jasoko. Gure umeek etxean jaso dute euskara, baina baita herrian ere, eta naturaltasunez hitz egiten dute. Aldea demasa dago bi herrien artean".

ORGANO ZALETASUNA

"Gaztetan pianoa ikasi nuen. Gero, Zuzenbidea ikasi, lanean hasi, eta pianoa laga nuen. Eta abar. Hurrena, seme txikia koskortu zenean, berriz ere musikari denbora eskaini behar niola pentsatu nuen. Eta, horretan nengoela, Bergaran organo eskolak emango zituztela jakin nuen. Organo bat gertutik sekula ikusi gabea nintzen, baina hasi egin nintzen, gustatu egin zitzaidan, eta gaur arte!".

Azken hitza

ESTRES LINGUISTIKOA

"Behin, larrialdi bat etxean, eta anbulantziari deika ari nintzen goizeko hiruretan. Telefonoa hartu, eta lehen mikrosegundoan, neure artean, 'euskaraz edo erdaraz egin behar dut?'. Herri honetan bizi gara, eta estres linguistikoa bizi dugu".

Eta, ahal bada, euskaraz artatzen dut. Zuzenbidea erdaraz ikasi nuen. Ikastolan, 14 urte arte, euskaraz ikasi genuen dena, baina harrezkeroko ikaskuntza guztia erdaraz egin nuen. Baina bi hizkuntzetan moldatzen naiz oso ondo, eta oso erraz egiten dut bien arteko transferentzia.

2016an epaiketa egin zenuen euskaraz, inoizko lehena Eibarren...

Agerraldi bat izan zen, nahi baduzu, eta bai, neuk eragin nuen. Aukera ikusten dudanean, euskaraz saiatzen naiz. Oso aukera gutxi daude, baina aukera horiek aprobetxatu egin behar ditugula uste dut. Herentzia bati buruzko auzi bat izan zen, idazkariarekin egin ahal izan genuena, epailerik gabe. Idazkaria euskalduna zen, bezeroa euskalduna, abokatua –ni neu, alegia–, euskalduna... Eta euskaraz!

Hainbat baldintza bete behar izan ziren epaiketa hura euskaraz egin ahal izan zedin. Kasuistika oso bat!

Epaitegiak dira... Badajoz! [Espainia] Eta, hala ere, eta zorionez, gaur egun, gero eta langile euskaldun gehiago daude epaitegietan lanean, hizkuntza profila ere badute, eta langile euskaldun gehiago daudenez, ahozko komunikazioa, behintzat, kasu batzuetan euskaraz egin dezakegu. Idazkariari eta epailei dagokienez, oso-oso gutxi dakite euskaraz. Ea, Justizia administrazioan, EAEn, langileen eskumena Eusko Jaurlaritzarena da. Duela hamar edo hamabi urte jaso zuen eskuduntza. Harrezkeroko, nabarmena da langile gehiagok dakitela euskaraz, baina dira ofizialak, agenteak, tramitatuak... Hortik gora joz gero, justizia administrazioa letratuak –garai bateko idazkariak, alegia –, fiskalak eta epaileak ditugu. Eta hiru eskalafioek Espainiako Gobernuaren menpekoak dira oraindik, eta ez dute euskaraz jakiteko obligaziorik.

Horrela ez dugu inoiz burutuko!

Kasu batzuetan, euskaraz jakitea izan liteke meritu, baina ez da derrigorrezkoa. Eta epailea egon liteke batean Eibarren, eta bestean Badajozen. Oraindik orain joan da Eibartik epaile bat euskalduna, donostiarra. Urte batzuk egin ditu Eibarren. Epaile gaztea. Horrekin ahozko komunikazioa euskaraz egin ahal izan dugu hainbat aldiz. Hala ere, epaile euskaldun horrek ere inguruan izan duen sare hori, letratu eta beste, erdalduna izan da. Gau-



zatzu batzuk –baina horixe dira, gauzaxoak–, egiten ditugu euskaraz. Gauza handirik ez. Oraintxe, Eibarren hiru epaile daude. Donostiar hark bazekien euskaraz –baina joana da hemendik–, eta beste biek ez. Lau letratu dauzkagu, eta batek ere ez daki euskaraz.

Nik esango nuke euskarak hobera egin duela Eibarren, masa irabazi duela”

Paretaren kontra joka beti.

Bai. Eta ni, paretaren kontra bai, baina kamikazea ere ez naiz, bestela ezingo nuke lan egin. Mundu euskaldunean biziko banintz, saiatu beharrik ere ez nuke izango. Baina gure mundua ez da euskalduna, eta saiatu egin behar dugu, beharra eta premia ditugu, eta horrek bultzatzen nau euskaraz lan egitera, ahal dudana puntura arte... Lehengo batean, epaiketa-gela batera sartu, eta epailea artean iritsi gabe edo. Baina hantxe zegoen fiskala. Eta nik: “Egun on”. Eta berak: “¡Buenos días!”. “Egun on!” nik, oster, eta berak, gogorrago, “¡Buenos días!”. Horixe da bizi duguna. Hortik aurrera zer egin behar dugu? Erdaraz! Ahal badut, euskaraz egiten dut, baina egoera batzuetan ezinezkoa da.

Euskaraz jardutea plus bat da zure lanean?

Nik horrela bizi dut, baina ez dakit bezeroak nola bizi duen. Esate baterako, ni bezero naizen kasuan, profesional bat aukeratzen dudanean, gehiago baloratzten dut euskaraz baldin badaki. Begira,

behin auzi bat izan nuen, Madrilgo betiko familia horietako baten kasua, Eibarren negozioak izandakoa. Haien abokatu lana egin nuen. Auzia egin zen, betiko moduan, eta dena bukatu genuenean, haietako bat etorri zitzaidan, eta zoriondu egin ninduen, gaztelaniaz hain ondo hitz egitea-gatik! Gurera etorrita, mediku euskalduna behar dugu, eta halaxe eskatzen dugu. Baina zenbat jende ikusi dut mediku euskalduna eskatzen, eta, hurrera, abokatua behar izan duenean, euskaraz ez dakien batengana jotzen?! Koherentzia pixka bat ere behar dugu, ezta? Euskaldun peto-petoak, eta beren abokatua...

Erdaldun peto-petoa.

Horixe. Eta ahoa betetzen zaigu mediku euskalduna eskatzen! Neuk ere nahiago dut mediku euskalduna, eta zinegotziak, eta udal langileak, eta ertzainak... Ezin denean ezin da, baina norberaren esku ere badago neurri batean. Hala ere, nik esango nuke euskarak hobera egin duela Eibarren, masa irabazi duela. Lanean hasi nintzenean, nire bezero gehienek ez zekiten euskaraz. Gaur egun, aldiz, bezero asko artatzen ditut euskaraz. Gazteak dira, gainera, eta ikaragarriko poza ematen dit gauza juridikoei buruz hitz egin behar, eta ulertzen dutela ikustea. Garai batean, bezeroa euskalduna izan arren, ez zen jantzia, eta nahiago zuen nik erdaraz hitz egitea termino juridikoetan hitz egin behar nuenean. Gaur egun, hori aldatu egin da, eta poztasuna ematen du. ●



Ez da hau, adiskideok



KARMELO LANDA
HISTORIALARIA

Ez da hau, adiskideok, euskaldunon etxea, aspaldi agindu zitzaiguna. Es-tres batean bizi gara egunero gure etxe, kale, taberna eta inguruetan. Ezin geurean aritu, ezin euskaraz bizi euskal herrietan. “*¡En castellano!*”, edo “*¡En français s’il vous plaît!*”. Ez dute ulertu nahi “kafe bat” eskatzen duzunean, atzamarrez *bat* seinalatuz ere ezin dute ulertu, nonbait. Hogei urtez herriko kontsultan dagoen medikuak ez daki euskara eta ez du ikasteko asmorik. Zertarako?

Ez da horrela, jaun-andreok. Parla-mentu eta gobernu anitzetan luze diharduzuenok agindu zeniguten: “Euskara, Euskal Herriaren berezko hizkuntza, gaztelania bezala, hizkuntza ofiziala izango da Euskadin, eta bertako biztanle guztiek dute bi hizkuntzak ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea”. Zuen legea da hau, eta ez naiz orain sartuko “Euskal Herria” eta “Euskadi” oinarritzko nortasun kontzeptu horien artean egiten duzuen erabilera maltzurra aztertzeraz, baina gure hizkuntzari eta gaztelarari buruz hor agertzen duzue, gaur egun, amarru iluna eta gezur borobila da. Amarrua, zeren esaten duzue esanda ere, ezkutatu egin duzue printzipala: gaztelararen edo espainiararen ezagutza derrigortu egin duzue lege, agindu, epaile eta zigor astunen bitartez Hego Euskal Herri osoan (beste horrenbeste frantsesa Ipar Euskal Herrian). Eta gezurra, zeren zuek “Euskadi” deitu nahi duzuen bertsio murriztuan bertan ere ez baitugu euskaldunok euskara erabil-

Mende erdi egingo dugu laster, eta hemen “elebidun” bakarrak gu geu gara, eta elebakar erdaldun bihurtzeko trantzean jartzen gaituzte egunero

tzeko eskubiderik ez aukerarik. Zuek gobernatzen duzuen eremu honetan, itolarrian eta ozta-ozta bizi gara euskara eta euskaldunok.

Nola konponduko dugu hau guztia? Badira gure artean “erdaldun taktikoak” dei genitzakeenak. Erdara behin-behinean erabiltzea proposatzen digute, era horretan apurka-apurka elebakarrak konbentzitzeko elebidun bihur daitezzen, eta orduan, bigarren jauzian, guztiok erdaretatik euskarara aldatu eta kito!, denok euskaldun.

Baina mende erdi egingo dugu laster, eta hemen “elebidun” bakarrak gu geu gara, eta elebakar erdaldun bihurtzeko trantzean jartzen gaituzte egunero. Porrota, beraz.

Baina hori nabarmendu denean, diskurtsoa berritu egin dute: badaezpada-ko soziologoak kontratatu dituzte, eta

arlo akademiko-zientifikoaren eraztun eta *bitolak* jarrita, esaten digute orain ez garela egoskor jarri behar “esentzialismo identitarioan”, azken finean euskara ez dela horren garrantzitsua, “multikultural” (?) bihurtzeak baduela bere xarma, eta beste hainbat arazo daudela euskararen gainetik, hala nola “ongizate estatu demokratikoa”, arrisku bizian ikusten dutena. Azken horrek gogora ekartzen digu tentelentzako lelo hura: “Zer duzu nahiago, mediku ona ala mediku euskalduna?”. Soziologiak ez du oso aurrera egin gurean, nonbait.

Zer bide hartu behar dugu, orduan? Esperientziak eta zientziak erakusten digutena. Dagoeneko, bietatik ikasi baitugu nahikoa. Praktikan jartzea besterik ez zaigu falta. Euskaldunok badugu horretarako “masa kritikoa” nahikoa, esan ohi den moduan. Kualifikatua, eta kuantifikatua. Bagara nor, bagara non, bagara zenbat. Elkartu, eragin, ekin behar dugu. Ez dugu gaztelaraz edo frantsesez aritzeko obligaziorik. Euskaraz aritzeko aukeraz baliatu behar dugu nonahi. Euskara erabiltzeko gai bagara, ez erabili erdara. Euskara ez dakienak ikasteko premia senti dezala. Eta bertoko agintariei, hautagaiei, arduradunei agindu euskaraz bizitzeko baldintza osoak indarrean jar ditzatela. Euskal kulturaren *polisistema* osoan, komunikabide publikoetan, hiri eta herrietako paisaia publiko eta pribatuetan, administrazioan, bizitzaren arlo guztietan. Euskara Euskal Herri osoaren berezko hizkuntza bakarra dugulako. ●

Afarie lanbaten, apuntau



MALORES ETXEBERRIA

PAULA ESTÉVEZ

Euskalduntzea eta alfabetatzea, hori zen gau eskola eta euskaltegien egiteko bikoitza. Erdaldunei euskara erakustea eta euskaldunei, berriz, euskaraz irakurri eta idazteko tresnak ematea. Alfabetatzera zihoana euskara etxetik zekarren belaunaldia zen, eskolan euskaraz ikasi gabea, euskarazko komunikabide oso gutxi zegoen garaian hazitakoa, eta oso jendetsua. Euskaltegi guztietan osatzen ziren alfabetatzeko taldeak, ez titulu baten premia zutelako, beren hizkuntzan pertsona alfabetatuak izan nahi zutelako baizik.

Urte batzuen bueltan, eskoletan D ereduak nagusitzen zihoan neurrian, eta euskarazko ikus-entzunezkoak ugaritu ahala, talde haiek desagertzen joan ziren; gero eta zailtasun handiagoa zegoen alfabetatzeko taldeak osatzeko, eta euskaltegiak euskalduntze zereginera mugatu ziren, nagusiki. 1990eko hamarkadan, esango nuke dagoeneko alfabetatzeko oso talde gutxi zegoela euskaltegietan.

Begi bistakoa da ETBk, esaterako, bere hutsune guztiekin, balio izan duela euskaldunak hein batean alfabetatzeko, eskoletara joateko aukera handirik ez lukeen adineko jendea, batez ere. *Mar-kagailua* edo *berdinketa* bezalako hitzak,

gure gurasoek bestela erabiliko ez lituzketenak, ETBko pilota partidak ikusiz ikasi zituzten. *Markadorea* eta *enpatea* erabiliko zituzten, seguruenik, hizketan, baina bazekiten beste modu batera ere esaten zirela, eta ez zien belarriko minik ematen hala entzuteak; alderantziz, ikasten ari zirela sentitzen zuten. Eta gauza bera gainerako euskarazko komunikabideekin. Denek egin dute alfabetatze lan hori. Eta, hala ere, zenbat jende dago oraindik euskaraz hitz egin bai, baina aise irakurri eta idazteko gai ez dena? Euskaraz irakurtzen gozatzen ez duena edota ohar bat idazteko zailtasun eta beldur handiak dituena?

Eta egoera hori izanda, kezka eragiten dit alfabetatuok, zahar bezala gazte, komunikazio idatzian hartu dugun jokabideak. Herri euskaldun askotan ikusi ditut kartelak era honetako esaldiekin: "*Afarie lanbaten, apuntau*". Eta zer esanik ez sare sozialetan –Twitter edo X-n, Whatsapp-en...–, "*enkargue ezto la ingo*" moduko mezuekin. Entzun dudanez, arrazoietako bat zera omen da, euskara batuak, estandarrek, ez duela txisparik eta, gainera, lekuan lekuko euskararen bizitasuna galtzen ari omen garela dena hain formal idatzita. Nik zalantza handia dut.

Alde batetik, beti pentsatu izan dut hobe dela euskara idatzia menderatzen ez duen jendea erdaraz aritzea baino euskaraz titili-potolo aritzea; ari denak, arituaren poderioz, hobetu dezakeelako, eta, bestetik, hizkuntza bat ez delako kultura batean gordeta edukitzeko altxor bat, baizik eta erabiliaren erabiliaz etengabe berritzen eta aldatzen doan tresna bizia, hizkuntza guztiak bezala. Baina gertatzen da maiz horrela idazten ari dena ez dela euskaraz justu-justuan dabilena, baizik eta jende alfabetatua. Zer mesede egiten dio horrek bizitasunari? Nire ustez, handirik ez, nor bere modura idazten duenez anabasa izugarria delako, eta gainera, kalte egiten diolako alfabetatu gabe dagoenari, erreferentzia eta eredurik gabe uzten duelako.

Ez da hori gertatzen hizkuntza nagusiekin. Euskaraz lokalismoak erabiliz idazten ari direnek gaztelaniaz komunikatzen dutenean, esaterako, ia beti gaztelania estandarrean egiten dute, lokalismoak oso une anekdotikoetarako utzita. Euskaraz, berriz, pedantetzat hartzen da zuzen idaztea. Beharbada oker nago, baina arazoa ez ote da neurri batean ez dugula erabat gainditzten euskara bigarren mailako hizkuntza delako sentimendua? ●



ANE LABAKA MAYOZ
BERTSOLARIA

Espainolez egingo du

Euskararen arnaguneetako batean gertatu da berriki. Zazpi urteko ilobak osabari galdetu dio –astebetean bigarren aldiz– ea egia ote den zazpi hilabeteko bere lehengusua herriko eskolara eramango dutela. Baietz erantzun dio osabak, eta orduan espainolez hitz egingo duela erantzun dio ilobak segidan –hori ere astebetean bigarren aldiz–.

“Zuk ere batzuetan hala egiten duzu ikastolako lagunekin” batek ihes egin dio osabari ezpainen artetik, gehiegi pentsatu gabe. “Ez, Keylan eta Enzok bakarrik hitz egiten dute gaztelaniaz, eta Alexek ere bai noizean behin, kanpokoak direlako”. Arnasa ahalik eta sakonen hartu du osabak. “Ez dira kanpokoak”. “Bai dira”.

Euskararen arnaguneetako batean gertatu da berriki. Aldamenetik entzun ahal izan dut elkarrizketa, eta mutumutu geratu naiz. Tristura moduko bat sentitu dut, amorruekin eta haserrearekin nahasian. Nork erasaten dio horrela umeen inozentziari? Zer dela eta darabiltza zazpi urteko mutiko batek hain ideia hertsia buruan eta, ondorioz, mihi-puntan? Nork eskaini nahi izan dizkio eskema zurrun horiek oinordetzan?

Presak hartu du mutikoaren ama: “Hitz ematen dizut nik ez diodala inoiz horrelakorik esan”. “Gure etxean ez du

sekula santan horrelakorik entzun”. Eta, hala ere, inguruan gertatzen dena ulertzeko ahaleginean ari den umeari era dikotomikoan ulertarazi diote guztiguztia. Mundua, erditik bi egina: ikastola-eskola, euskara-espainola, euskalduna-kanpoko.

Zazpi urteko umea bizi den herrian bi eraikin desberdin daude, elkarren ondoan baina elkarri bizkarra emanda. Pentsa, herrian gurasogaiei egiten zaien aurrenekoetako galdera da ea haurra eskolara edo ikastolara eramateko asmoa ote duten. Eta behin haurra munduratu, galdetzera ausartzen ez denak bere hipotesiak partekatzen ditu plazako korroetan, beste ume zaharragoen gurasoekin pipak jaten edo, besterik gabe, hotza pasatzen ari den bitartean. Horrela, bi zerrenda paralelo osatzen dira pixkanaka eta, urtea joan eta urtea etorri, bi zerrendetako batek irabazten du aldiro ping-pong partida: “Aurten ikastolan baino haur bat gehiago matrikulatu da eskola publikoan”. Edo alderantziz.

Kontua da nik zazpi urteko umeari –eta, zer esanik ez, zazpi hilabetekoari– opa diodala herri bat non eraikinetako ateak eta leihoak zabalik egongo diren. Mundu bat non tonu grisek ere lekua izango duten. ●



ARANTZA GUTIÉRREZ
EHU-KO IRAKASLEA

Lotsaren ituna

Duela aste batzuk Bartzelonan batuginen Mugak Zabalduz karabananen aurtengo ibilbidea eta helburua zehazteko asmoz. Uztailean Trieste eta Balkanetako mugara joango gara, berriro ere (bederatzigarren edizioa da) Europak sustatzen duen migrazio-politikak sufrimendua eta heriotza dakartzala salatzen. Balkanetako muga arriskutsuenetarikoa da, bereziki adin txikiko haur eta gaztetxoentzat, Save the Children bezalako erakundeek salatu dutenez.

Besteak beste, salatuko dugu migrazioaren sistema aldatzeko Europako Parlamentuak eta gobernuek abenduan adostu zuten babes- eta migrazio-itun europarra. Horren bidez,

mugetan egun gertatzen diren abusu batzuk legeztatuko dira, horien artean berehalako itzulketak, haurrenak barne. Gainera, estatuek aukeratu ahalko dituzte sartuko diren pertsonen soslaiak, baita “dagokion migratzaileen kopurua” errefusatu eta hirugarren herri bati ordaindu ere, atxiki ditzan, eskubideak bermatzen diren kontrolatu barik.

Akordioa otsailean berretsi, eta ekaineko hauteskundeetan aurretik formalki onartuko dute. Ez dakit lotsaren itun horren aplikazioa geldiarazteko indarra izango dugun, baina, Europa gurutzatzen duen olatu arrazistaren aurrean, ahotsa altxatu eta “gure izenean ez” ozen esango dugu. ●

Gerezien denbora burujabetza digitalarentzat



BEÑAT IRASUEGI IBARRA
KOOPERATIBISTA

Badaramat denbora tarte bat haserre egunerokoan inguratzen nauen errealitate digitalarekin. Mugikorren gehiegizko erabilera pertsonalak, seme-alaben hezkuntzaren *googleizazio* eta erabilera digital deterministak, erakunde publikoek korporazio digital erraldoien tresnekiko erakusten duten borondatezko sumisioak, eta oro har paisaia numerikoan ikusten den monokultibo kapitalistak sumindura zehaztugabea sortzen dit.

Mota guztietako eragile sozial, kultural eta politikoek eskatzen dizkidate datuak Google tresnen bitartez, edo harro jakinarazten, ustezko modernitatez, nirekin harremanetan jartzeko korporazio digital baten azken tresnan kontua ireki dutela, paisaia soziala haien logoekin betez. Nire pazientzia estrategikoa gaindituta dago.

Murgilduta nagoen eremu kooperatiboetan egoera ez da hobea, eta askok beste bide bat abiatu badugu ere, korporazio digitalen menpeko proiektugintza daukagu. Ekonomia soziala eraldatzaile, ekologista, feminista eta antiarrazista izatea erabat barneratu-

Lurralde digitala materiala eta politikoa dela aldarrikatu behar dugu, eta korporazio digitalen tresnen erabileraren inguruko kritika normalizatu

tako bide bihurtzen ari bada ere, ez da bera gertatzen digitalitatearekin. Nola askatu kapitalismo digitalarekiko menpekotasunetik?

Lehenik, lurralde digitala materiala eta politikoa dela aldarrikatu behar dugu, eta korporazio digitalen tresnen erabileraren inguruko kritika normalizatu. Izan ere, proiektu kolektibo eta eraldatzaileetan joera dute kanpo faktoreei egozteko digitalizazio eredu kontziente eta kritikoa ez izatearen ardura,

aitzakia gisa jarrita ezezagutza edota arrazoi teknikoak, eta ez politikoak.

Bigarrenik, elikadura, energia, zaintza eta bestelako eremuetan, burujabetzaren aldeko mugimendu eta proiektuek egin duten bidea jarraituz, gure bizitza eta lurraldeak emantzipatzeko ezinbesteko eremu bihurtu behar dugu teknologia burujabetza. Diskurtoak, estrategia politikoak eta proiektugintza eraldatzailea saretu eta aktibatu behar ditugu ildo horretan.

Hirugarrenik, Euskal Herrian opa-roa izan den eremu digitalean, bidea egiten ari diren proiektuei burujabetzarako erabaki esparruetan agentzia eman eta indartu behar ditugu, gure egunerokoan korporazioen menpekotasunetik ateratzea denontzat praktika irisgarria izan dadin.

Burujabetza digitalarentzat gerezien denbora lanketa kolektibotik ekarriko dugulakoan, sumindurak utzi, eta egunerokoan jarriko dut nire aletxo, EH Digitala, euskal fedibertsoa, euskarazko Wikipedia, TEKS elkarte eta Torrekua bezalako proiektu eraldatzaileetan. ●

40.
URTERORRENA

Arabako BERTSOLARI TXAPELKETA 2024

2. Finalerdia

MARTXOAK 2, Larunbata 17:30ean
DULANTZI, Mikaela Portilla Kultur Etxean

Aitor Ugarte Eritz

Aroa Arrizubieta Barredo

Asier Otamendi Alkorta

Izar Mendiguren Cosgaya

Paula Amilburu Izargarni

Xabier Igoa Eritz

Gai-emaile: Marta Ugarte Abasolo
www.bertsozale.eus - www.bertsosarrerak.eus

MARTXOAK 8 / EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

ZUETAZ HARRO



Ahaldundutako emakume bakoitzaren atzean ahalduntzera bultzatu duten beste emakume batzuk egon dira.



MENDI FEDERAZIOAK 100 URTE

Mendiaren *kulturari* eusteko sokak, tenkaturik

Euskal Mendizale Federazioak 100 urte beteko ditu datorren maiatzaren 18an. 1924an sortua, mendeurrenak bide eman digu mendizaletasunak izan duen eboluzioaz eta aurrera begirako erronkez aritzeko. Sekula baino jende gehiago dabil geurean mendian, eta aldatzen ari da hura ulertzeko modua, gizarteak izan duen eboluzioari helduta.

 JON TORNER ZABALA

Mendi taldeek bultzatuta sortu zen 1924an Federazioa. Mendiaren "kulturaren" transmisore nagusietakoak, garai berrietara egokitzea dute erronka. Argazkian, Zumarraga-Urretxuko Ostadar elkarteko mendizaleak, 1984an.

JOSE LUIS ZALDUA

Euskal Mendizale Federazioa, ofizialki Federación Vasco-Navarra de Alpinismo, Hego Euskal Herriko lau lurraldeetako mendi elkartee-tako kideek bultzatuta sortu zen 1924ko maiatzaren 18an. Elgetan egin zuen fundazio-ekitaldia; gerora Mendizaleen Plaza deitu zitzaionaren pareko etxean gertaera hura gogoratzen duen plaka txikia dago, iraganaren lekuko den beste baten alboan: *Gudarien bidea*.

XX. mendean sartzearekin hasi ziren loratzen mendi elkarreak, kirol edota aisiari lotutako beste hainbat jarduerarekin gertatu zen moduan, hein handi batean posizio sozial oneko gizonen eskutik. Euskal mendizaletasunaren historiaz hitz egiten denean, ordea, abiapuntua Etiopian kokatzen du hainbatek, 1848an Anton Abadia euskaltzaleak Buahit mendia (4.437 metro) igo zueneko azterlan kartografikoak egiteko. Beste data bat ematearren, 1914a ere sarri antzean aipatzen da, ingurumari horretan lehiaketa antolatutako zutela zerbait mendizalek –hamabost tontor igotzea zuten erronka–, eta orduan ipini zelako lehenbiziko postontzia, Anboton, mendizaleen lorpenen testigu.

Ordura arte beharrezekin zuen lotura mendiak, lanarekin, abeltzaintza eta laborantzarekin, ehizarekin. Elkarreak eta Federazioa sortuta, hasi ziren zabaltzen mendira hurbiltzeko bestelako moduak, moda bihurtzeraino. Bidean, mendizaletasunak galdu ditu berezkoak zituen osagai batzuk, eta berriak irabazi.

“Arrigorriagako Padura mendi taldeko bazkidea nintzela, 14 urterekin, materialaren arduradun izendatu ninduten, bazkideek alokatzen zituzten kranpoi, piolet eta gainerakoen kontrola eramaten nuen. Gaur egun, ordea, norberak du bere materiala, Internetera konektaturik gaude...”. Mintzo dena Zigor Egia da, 2021eko martxoaz geroztik Euskal Mendi Federazioko presidentea. Iñaki Garai –Federazioko zuzendari teknikoa– ere agertu da Amurrión lotu dugun hitzordura. Mendi taldeek egiten duten, edo zuten, transmisio lanaz aritu zaizkigu, erreleborik ez izateak ekar ditzakeen ondorioez, garai bateko liburu eta mapez eta gaur egungo mugikor eta GPS gailuez, 40 laguneko txangoa antolatzeak eskatzen duen ahaleginaz eta bazter oro zipriztintzen ari den indibidualismoaz. Gizartearekin batera aldatzen da mendia.

“Garai berrietara egokitzen ikasi beharko dugu”, esan digu Egia: “Erron-



UBIDESTROI

ETIKETA BERDEA mendi lasterketa etiko eta jasangarrien aldeko ekimena 40 bat probak osatzen dute gaur gaurkoz, Ubidestroi gazteak tartean (argazkian). Gotzon Idirin zeanuriarra da bultzatzaileetako bat: “Lasterketen antolatzaileentzat ederra da leku emblematikoen jendea pilotzea, irudi ikusgarriak uzten dituelako, baina ez da jasangarria; ez da jasangarria ingurune babestuetan sartu nahi izatea, paraje politik izanagatik”.

ka handia da, ez soilik mendi elkarreentzat, baita Federazioarentzat ere. Ziurrenik taliban xamarra izan gara zenbait aldaketaren aurrean, kontziente gara horretaz, baina ari gara trantsizioa egiten, modalitate bakoitzaren berezitasunak aintzat hartuta. Mendiko eskian adibidez emaitza onak ari dira lortzen emakumezkoak”. Alpinismoa, ipar mar-txa, eskalada, mendi lasterketak... anitza da Federazioa.

Mendizaletasunak izan duen eboluzioaz mintzo, ezinbestean hitz egin behar da mendi korrikalariez, askoren iritziz lehia mendira ere eraman duten “atletez”. Gotzon Idirin zeanuriarra haletako bat da, nahiz eta, mendi laster-

ketek hartu duten norabideak kezkatuta, bestelako eredu baten alde egin duen, lasterketa etikoen aldeko Etiketa Berdea manifestua sortzeko beste hainbat korrikalari eta antolatzaileekin batera. “Nik duela hamabost bat urte deskubritu nuen lasterketen mundua, eta denborarekin ikusi dut mutazioa izan duela, lehiarantz eboluzionatu eta modan jarri dela. Eta erakarri du mendiarekin harremanik ez zuen jendea. Hori ez da txarra, ezta gutxiago ere, baina iruditzen zait pertsona batzuek ez dutela mendiari lotutako hezkuntza edo kultura barneratu. Heldu dira beste kirol batzuetatik, atletismo edo triatloietatik adibidez, eta ikuspegi konpetitiboa ari da gailentzen”.

Gorbeia Suzien lasterketaren sortzaileetakoa izan zen Idirin. Hainbat urteren ostean lan-taldea utzi zuen, gerora Ubidestroia antolatzen hasteko. “Lasterketa bat lasterketa bat da, lehia ezinbestean egongo da, baina nolakoa? Duela 15-20 urte pentsaezina zen korrikalari batek min hartu eta hura laguntzeko ez geratzea, adibidez. Presio handiarekin bizi dira lasterketak, dopin kasuak ere agertu dira... Mendia guretzat arnagunea da, eta kezkatu egiten gaitu balore batzuk hara es-trapolatzeak”. Hirigunean egiten den Behobia-Donostia jarri du adibide moduan: “Nahiz eta milaka korrikalari eta ikusle biltzen dituen, ingurumenean ez du horrenbesteko kalterik eragiten”.

HERRIA EZAGUTU, HERRIA MAITATZEKO

Antxon Iturriza mendizale eta kazetari beteteranoa EMMOA Euskal Mendizale-tasunaren Museoa fundazioko kidea da: “Gauzak aldatzen ari dira. Garai batean mendian korrika aritzea ez zegoen ondo ikusia, eta orain aldiz modan dago. Mendiak bazuen, nolabait esateko, ukitu erromantikoa, eta iruditzen zait gaur egun gehiago dela kirol bat”.

Aurten 40.000 lagunek baino gehiagok dute Euskal Federazioaren lizentzia, eta 14.000 inguruk Nafarroako Federazioarena. Hego Euskal Herrian 55.000 pertsonak; izugarria da kopurua, aintzat hartuta federaturik ez da goen jende mordoia joan ohi dela gurean mendira.

“Sekula ez da hainbeste federatu izan”, esan digu Iturrizak. “Franco hil ostean lizentziek behera egin zuten, gazteak politikan-eta sartu zirelako. Garai mugituetan, Bigarren Errepublikan ere horrela gertatu zen, ‘inportanteagoak’ diren kontuek indar handiagoa hartzen dute aisialdiko jarduerak baino”. Bere hitzetan, dena den, euskal mendizaletasunak zainetan darama “konponente politikoa”; kirol jarduerak hutsetik harago, askatasun-eremua izan da askorentzat. “Kalean ezinezkoak ziren aldarrikapen politikoak han egiten ziren maiz. Esan, erakutsi, kantatu... Lehen, tontorrean ikurriña bat ikusi eta sekulako zirrara sentitzen genuen, debekatuta baitzegoen hura erakustea. Mendizaletasuna eta aberzaletasuna elkar hartuta doaz, zeharkaldietan aberria ezagutzen delako”.

Ildo berean mintzo da Federazioko presidente Zigor Egia; herria maita-



EMMOA fundazioak dituen zientoka argazkien artean, Antxon Bandrés (1879-1966) enpresari eta Mendizale Federazioko aurreneko presidentearen artxiboko argazki hau dago: Elgetako plaza lepo ageri da 1924ko maiatzaren 18an, fundazio egunean.



J. LAREDO



MARTIXU BILBAOREN BILDUMA

Mendizaleak neguan bibaka egiten, Pirinioetako Anayet-en; eta sokak lagun harkaitz artetik jaisten, 1950eko hamarkadan.



FORTUNA KIROL ELKARTEAREN FUNTSA

Donostiako Fortuna taldeak antolatutako Mendi Ibilaldiak 82. edizioa beteko du ekainean. 1941ean egin zen lehen edizioa, Usurbil eta Tolosa artean. Ordukoa da argazkia.

BI FEDERAZIOAK BATZEA HELBURU

Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako mendizaleek sortu zuten 1924an federazioa. Elkar helduta egin zuten makina bat urte, 1980ko hamarkadan indarrean jarri ziren lege autonomikoez EAE eta Nafarroako federazioak banandu zituzten arte. 40 urte geroago, *Mendiurren*-eko egitaraua elkarrekin osatu dute, eta hark hauspotuta, Euskal Herriko Mendi Biltzarra gorpuzteko lanean hasi ziren duela hiru bat urte, Ikastolen Elkartearen edota Bertsotzale Elkartearen egituraketa eredu hartuta.

Bi federazioak lotzen dituzten kontuak bideratu dituzte biltzarrek: Pyrenaica aldizkaria, Besaideko oroimen eguna, Euskal Herriko Erdigunera Martxa, mendeurrenako kontuak... Hain justu, urteurrenean, maiatzaren 18an, aurkeztuko dute erakunde berria Elgetan. Bi federazioez gain EMMOAK ere badu ordezkartza biltzarrean, eta litekeena da Ipar Euskal Herriko eragileren bat ere sartzea.



JON TORNER ZABALA

2021 ean sartu ziren Zigor Egija eta Iñaki Garaik EMF Euskal Mendizale Federazioaren zuzendaritza-batzordean, lau urterako. "Guretzat funtsezkoa zen Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako federazioen babesaren lortzea, gainerakoan ez genuke kargua onartuko".

tzeko hura ezagutu egin behar dela dio, ezagutu behar direla bai parajeak, baita bertan bizi diren pertsonen jarduna ere, artzain edota nekazariena esaterako. "Eta esango nuke Federazioak hori bultzatu duela sortu zenetik, mendian ibiltzea herria ezagutu eta maitatzeko".

"Lasterketak sarri pasatzen dira toki pribatuetatik, basoetatik, larreetatik...", irakur daiteke Etiketa Berdearen manifestuan. "Bertan bizi eta lan egiten duten pertsonak daude, artzainak esaterako. Oso garrantzitsua iruditzen zaigu hau presente izatea". Eta beheraxeago: "Bailarako edo herriko ondare kulturala indartze eta ezagutze aldera ekintza bereziak antolatzea proposatzen da, adibidez, artzainen lana goraitu, ondaregune diren tokiak erakutsi, toponimia berreskuratu...". Gomendioek berdin-berdin balio dute zakurrak solte eramaten ditugun kalekumeentzat, edo autoa edozein bazterretan uzten dugunontzat.

"EZ DUGU DIRUAGATIK KORRIKA EGITEN"

"Azkarrago bizi gara, indibidualismoak indarra hartu du eta norbanakoa komunitatearen aurretik jartzen dugu maiz", dio aipatu manifestuak. "Egun, gizartearen eboluzioari loturik, lasterketen norabidea ere aldatu dela igarri dugu. Asko mediatizatu dira, modan jarri direla esan dezakegu, eta horrek eragin du guk ezagutu gennituen baloreetako asko bidean galtzea".

40.000 lagunek baino gehiagok dute Euskal Federazioaren lizentzia, eta 14.000 inguruk Nafarroakoa. Izugarria da kopurua, aintzat hartuta federaturik ez dagoen jende mordoa joan ohi dela gurean mendira

Eboluzio horrek kezkatuta, hainbat korrikalari eta antolatzailek gogoeta abiatu zuten, eta horrek eraman ditu Etiketa Berdea sortzera. Gaur gaurkoz ekimena osatzen dute 40 bat lasterketek, ia denak Euskal Herrikoak, eta sustatzaileek espero dute epe motzean proba gehiago batzea. Proiektuarekin bat egiten duten lasterketek, naturarekin eta beste kirolariarekin "begirunezko harremana" bermatzea xede, zenbait gomendio hartu behar dute aintzat, eta konpromiso zehatz batzuk bete.

Dekalogoan badira, batetik, edozein kirol ekitaldik har ditzakeen neurriak:

babesleena izaera ahalik eta etikoena izatea; ahal den neurrian anoa postuetako jan-edanak bertakoak eta ekologikoak izatea; hizkuntza gutxituak lehenestea; garaikurrak genero ikuspegitik ez-estereotipatuak izatea; musika ez sexistat pintzatzea; eta abar luzea. Bestetik, propio mendi lasterketen antolatzaileek kontuan hartzekoak daude. Adibidez: ibilbideak zeharkatzen badu parke natural edo ekologikoki zaurgarria den ingurunea, parte-hartzaile kopurua gehienez 500 lagunekoa izango da; ikusleei dei egingo zaie leku horietan ez pilatzeko; beharrez dagoen korrikalariari laguntza ukatzen diona kaleratua izango da, baita gel bat lurrera botatzen duena ere; "eliteko" korrikalariak ez dute pribilegiarik edukiko -ez dute sailkapen, ibilbide edota sari desberdinik izango-; sariak orotara ez dute 3.000 euroko langa gaintuko; eta dortsal bat lortzea ekonomikoki guztiztat eskuragarria izan dadin salneurria kilometro bakoitzeko 0,5 eta 1,5 euro bitartekoa izango da. "Ez dugu diruagatik korrika egiten", dio Etiketa Berdearen dekalogoak.

Mendi lasterketak diren arren hein handi batean mendizalearen eboluzioa markatzen ari direnak, Federazioaren teknikari Iñaki Garaik gogorarazi digu hura osatzen duten kirolarien %10 besterik ez direla korrikalariak. "Komunikabideetan eta sare sozialetan agertzen dira selekzioan-eta dabilzanak,

baina federazioa askoz ere zabalagoa da. Esango nuke, nolabait parekatzearen, lehiaren mundua dela enpresetako I+G+B, mendizaletasunak bizi duen garapenaren erakustoki”. Mutazioa, baina, ez da bat-batean heldu. “Pasa den mendean alpinista batzuk Everest aldera joan zirenetik aldatzen ari da eredu”. EMMOA fundazioko kideek argazki bat erakutsi digute. Dozena erdi gizonezko ageri dira, galtza motzetan oker-okera aldapan gora: “Mendi lasterketen aitzindariak Pagasarrin, 1912an”. 100 urte baino gehiago pasa dira ordutik.

“Euskaldunok ADNan daramagu mendizaletasuna, etxe guztietan daude motxila eta botak”, dio Egiak. “Orografia gure parte da. Nire aitak, adibidez, eskolara joateko egin behar zituen hainbat kilometro maldan behera”. Gaur egun kirol edo aisialdi jarduera da batez ere, jende ugari ari da erakartzen, eta normala ere bada batzuek ezagutza nahikorik ez izatea. Zentzu horretan, beste hainbat egitasmoren artean, segurtasunari buruzko kanpainak abiatu ditu federazioak, baita ikastetxeetan ere, mendira joateko nola prestatu behar dugun azaltzeko (eguraldi iragarpena begiratu, nora zoazen esan, indarrak neurtu...), ikusi dutelako urte gutxian hirukoiztu egin dela erreskate kopurua, egunean hamar abisu jasotzeraino.

Gotzon Idirin suhiltzailea da, erreskate-lanetan zaildua. “Geroz eta mendizale gehiago artatzen dugu. Ez dago mendi kulturarik; mugikorra bateriarik gabe geratuz gero jende batek non dagoen ere ez daki. Eta hala moduz ekipaturik doa. Elurra egiten duenean Gorbeia aldera joaten naiz sarri, eta panorama ikusita makina bat aldiz egin dut ospa handik, lanean hasi beharko dudana beldurrez. Geologoa naiz ikasketaz, eta iruditzen zait mendiak duen gauzarik ederrenetakoa dela gu txiki sentiarazteko duen ahalmena. Jende batek, ordea, edozer egiteko gai ikusten du bere burua, ez da kontziente eguraldi aldaketa batek dena hankaz gora bota dezakeela. Mendiari errespetua izan behar zaio”. Baita iraganari ere.

ALT XORRAK DIRDIRARIK EZ

“Ez jakin xamarrak gara gure historiari dagokionez”, esan digu EMMOA fundazioko kide Antxon Iturrizak, seinalatzen dituen bitartean Martuteneko bulegoetan pilatutako objektu bete kaxak. Duela hogeit bat urte heldu zioten museoaren proiektuari, ondarea bildu eta ezagu-

“Ez dago mendi kulturarik;
mugikorra bateriarik gabe
geratuz gero jende batek non
dagoen ere ez daki”

Gotzon Idirin, Etiketa Berdea

tzera emateko helburuarekin, eta zenbait saiakeraren ostean, litekeena da epe motzean inauguratzea, Tolosako Arkautete etxean.

“Uste baino prozesu luzeagoa izan da”, aitortu digu Iturrizak. “Uste genuen proiektua aurkeztu eta denak txundituko zituela, baina konturatzen zara amets batzuk betetzeko dirua behar dela eta... Nahiz eta Tolosako Udalak jarrera oso ona erakutsi duen, instituzio gehiagoren babesa beharko dugu”. Bada beste arazo bat, gainera: “Nork hartuko du gure lekukoa? Adinean aurrera goaz, musu-truk ari gara ekinean, eta nahi badugu museoa egonkortzea, neurri batean profesionalizatu egin beharko da, ez gaude-eta boluntarioen bila hasteko garairik onenean”. Boluntario-lana, militantzia, transmisioa; hainbat espa-

rrutako elkarte eta kolektibok du kezka bera. Gotzon Idirinek bateko eta besteko beharrek uzten diotenean heltzen dio Etiketa Berdearen proiektuari, eta federazioko presidente Zigor Egia bera ere ez da soldatapean ari: “Zor bat nuen mendizaletasunarekin, momentu txarretan lagundu egin didalako. Batzuek zortzimilakoak eskalatzen dituzte, eta besteok alpinismo politikoa egin behar dugu. Bakoitzak egin behar du ahal duen ekarpena; konpromiso hori etxean ikusi dut, dela ikastolen sorreran, dela mendi taldean lanean...”.

Martuteneko 27 poligonoko eraikin bateko bi gelatan gordetzen du EMMOAK urteetan pilatutako materialaren parte handi bat. Bulego batean dituzte dokumentuak (liburuak, egunkari eta aldizkariak, argazkiak, gidak, mapak...), eta bestean mendiko materiala (pioletak, eskiak, txamarrak, botak, kranpoiak...). Aurki daitezke, besteren artean, Maritxu Urretaren –Club Vasco de Camping elkartearen fundatzaileetakoa– kranpoi eta egurrezko eskiak, Trini Cornellana alpinistak 1976an Shakhaur-era (Afganistan) egindako zorigaitzoko espedizioan jantzi zuen berokia –mendi hura igo duen lehenbiziko emakumea da–, Gregorio Arizek 1979an Daulaghiri igotzeko zeramatzan botak eta pioleta –hura izan zen euskal espedizio baten aurreneko zortzimilakoa–, Martin Zabaletak



ANTXON ITURRIZAK EMMOA Mendizaletasunaren Museoa fundazioko kide da. “Ignorante xamarrak gara gure historiari dagokionez”, esan digu. Duela hogeit bat urte heldu zioten proiektuari, ondarea bildu eta ezagutzera emateko helburuarekin, eta litekeena da epe motzean inauguratzea.

'MENDIURRENA'

Aberatsa da Federazioaren mendeurren-egitaraua. Besteak beste: martxoaren 16an zazpi lurraldeetako mendizaleek Euskal Herriko sei tontor igoko dituzte; martxoaren 20an Elgetatik pasako da Korrika, eta mendizaleek kilometroa egingo dute; apirilaren 27 eta 28an *100 urte 100 mendi* ekimena egingo da, non Euskal Herriko ehun mendi taldek baino gehiagok 100 tontor igoko dituzten; maiatzaren 18an ekitaldi berezia egingo da Elgetan; eta ekainaren 17an 1974ko Everestarako *Tximist* espedizioaren 50. urteurrena ospatzeko erakusketa inauguratuko da Gasteizen.



Tximist espedizioaren 50. urteurrenaren bueltako erakusketak itxiko du 'Mendiurren' egitaraua. EMMOaren artxibotik hartutakoa da irudi hau, baita azpian duzuenak –Loli Lopez Goñi donostiarra, 1959an Alpeetan eta azalekoa ere –Udaondo, Urones, Landa eta Regil bizkaitarrak Mont Blanc-eko gailurrean, 1962an–.

1980an Everesten jantzi zuen txamarra horia... Sekulako altxorra, hamaika kaxatan gatibu dagoena.

MENDIEN DEFENTSAN

Dokumentuen atalean bildutako egunkari eta afixek bide eman digute natura-guneen defentsan deitutako ekintzez solasteko. "Gogoan dut 1975 inguruan *Zain dezagun Belagua* kanpaina abiatu zela, eraiki nahi zituztelako eski estazioa eta urbanizazio bat", kontatu digu Iturrizak. "Eskerrak ez zuten gauzatu, ingurumenean izango lukeen inpaktuagatik, are gehiago negozioari eutsi ahal izateko nahikoa elur egiten ez duela ikusita. Eolikoen auzia dago orain pil-pilean. Eta sartu dira zuhaitz-espezie kanpotarrak, egin dituzte porlanezko bideak, AHT... Gizakia espezie erasotzailea da, etengabe ari gara izadia kolpatzen, bertan esku hartu eta eraldatzen. Interes desberdinak izan ohi dira jokoan eta...".

Mendizale Federazioko kideek azaldu digute batzarrean galdetu zitzaizela eolikoen eta gisakoen aurrean nola posizionatuko ziren: "Gure estatutuetan idatzita dago mendiak defendatu behar ditugula", azaldu digu Egiak. "Berriztagarrien alde gaude, non eta nola ordea? Kasuan kasu aztertu behar da egoera, baina printzipioz ez dugu nahi dorre elektriko, haize-errota edo errepede gehiagorik".

"Horrelako mega-proiektuen inpaktua demasa da", kexu da Etiketa Berdea ekimeneko Gotzon Idirin. "Begara AHTa zein sarraski egiten ari den Durangaldean. Dirua edo natura jartzen direnean balantzan, galtzekoa naturak du beti. Eukaliptoen aferak ere eman du zeresanik; azken finean, berehalako etekin ekonomikoaren bila baldin bagoaz... Ondarea ez da soilik etxe hau edo dena delako beste hura, baizik eta gure seme-alabentzat mundu hobe bat eraikitzea".

"Herriak" bueltan jasoko duen inpaktu ekonomikoa haizatu ohi dute han-hemengo agintariek, kirol ekitaldiak antolatzekeo egarri aseezina justifikatzeko, eta mendia ez da "salbuespena", izan beharko lukeen arren, Idirinen hitzetan: "Lasterketen antolatzaileentzat ederra da leku enblematikoetan jendea pilatzea, irudi ikusgarriak uzten dituelako, baina ez da jasagarria; ez da jasagarria Itxina biotopoa bezalako ingurune babes-tuetan sartu nahi izatea, paraje polita izanagatik".

Nolakoak izango dira gure mendiak hemendik 100 urtera? Mendizale-tasunak norantz egingo du? Norantz lehiak? Zein ote da federazio eta mendi elkarten patua? Auskalo. Artean, arnaguneok ez itotzeko eredu baten alde dihardu hainbat eragilek. Urte on askoan. ●



I. GOIKOETXEA / EMMOA FUNDAZIOA

Ane Elordi, Korrika-ren koordinatzailea

“Bakoitza gure ezberdintasunetatik, baina batzen gaituena euskara da”



Korrika, euskararen aldeko ekitaldi erraldoiena, iristear dago, eta Ane Elordi (Zornotza, 1991) dugu antolaketa-lan izugarri honen koordinatzaile. Bileraz bilera dabilen honetan, hizketarako tarte bat eskaini digu eta, besteak beste, Korrikak Euskal Herriarentzat, nahiz AEK berarentzat, zer esan nahi duen jardun dugu.

 CIRA CRESPO  DOS POR DOS

2022an hautatu zintuzten koordinatzaile. Zer esan nahi du horrek?

Horrek esan nahi du, aurrerantzean, eta dena ondo bidean, datozen lau Korrika aldien koordinatzailea izango naizela. Ni irakaslea naiz Arratian [Bizkaia], eta komunikazio arloan ere ibilia naiz, baina koordinatzaile ardura hartu ondoren lanak bestelakoak dira. Korrika urteak ehuneko ehuna eskatzen du, eta aritu behar izaten da nazio mailako antolaketan, mahai nazionaleko batzordea gidatzen, kanpora begira Korrikaren gaineko informazioa helarazten, eta eragileekin harremanetan.

Zer moduz zabilta oraingoz?

Oraingoz, ondo. Nik beti esan izan dut Korrikari jendarteak oso harrera ona egiten diola eta, halaxe, zoazen lekura, giro atsegina aurkitzen duzu.

Kontatu pixka bat zein den zure hizkuntza biografia, zure harremana euskararekin...

Aita jaiotzez amerikarra daukat, aitonamonak euskaldunak, baina Amerike-

tara lanera joandakoak. Han jaio zen nire aita, eta 18 urterekin Euskal Herri-
ra bueltatu ziren; orduan ezagutu zuen nire ama. Nire ama ez zen euskalduna, euskaltegian euskaldundua da. Beraz, beraien harremana euskaraz eta gaztelaniaz izan da, bietara. Gero, bai nire ahizpari bai niri euskaraz egin izan digute. Sarritan, inguruak esan izan digu: "Jo, eta zure aita, amerikarra izanda, eta ingelesa zergatik ez?". Bada, berez, gu euskaldunak garelako. Ikasketa guztiak euskaraz egin ahal izan ditut, eta egia da egunerokotasunean ere euskaraz bizitzeko aukera daukadala, baina ni zornotzarra naiz, eta gure herria erdalduna da... Hau da gure errealitatea.

Eta noiz hasi zinen hizkuntzaz interesatzen?

Interesa beti izan dut. Unibertsitateko ikasketak aukeratu behar nituenean, Euskal Filologia egin nahi nuen, baina etxean esan zidaten, "hori gero zertarako? Liburu bat idatzi nahi dozu?". Eta nik esan nuen, ba, ez dakit... Eta orduan kazetaritza aukeratu nuen, eta oso gustura egin nuen. Gero, AEKn sartu ondo-

ren, euskara irakasle aritu naiz, eta oso gustuko dut. Uste dut oso garrantzitsua dela komunikazio mundutik egiten den ekarpena irakasle izateko; bai, hizkuntza kontrolatu behar duzu, baina zelan irakatsi?

Gogoan duzu zure lehenengo Korrika?

Bai, zerbait. Ez dakit lehenengoa izan zen... Gogoan dut gauez zela, 10-12 urte izango nituen, eta oso berandu zetorren, ordubeteko atzerapenarekin, eta nola egon ginen tabernan zain, kanpoan euria ari zuela...

Eta zein duzu oroipen hunkigarriena?

21. edizioan furgonetako taldearen parte izan nintzen eta handik ikusi nuen beste errealitate bat, ordura arte ikusi gabekoa. Zeren eta gu, Bizkaian, lurralde oso populatuan gaude, eta jende masa bat ikusten duzu aurrera egin ahala, baina, adibidez, gauez, edo aste barruan, Araban edo Nafarroan ez dago hainbeste jende, baina bertan dagoen jendearen konpromisoa, agian, handiagoa da.



“Guk behar dugu ezer ez dakienarentzat hasierako maila doan izatea, euskalduntzeko bide osoa egin behar duen jendearentzat, batez ere”.

Berezia da adibidez, Gorbeia aldetik, edo Nafarroako Pirinioetatik pasatzea. Edo, badaude momentuak ere, lekukoa pertsona jakin batek hartzen duenean, edo omenaldiak egiten direnean...

Hiriak mugitzen duen masa beharrezkoa da: hemen euskaraz bizi nahi dugu eta hiriak kolapsatzera gatoz. Baina hirietatik kanpo dagoen errealitatea ere oso gogoan izan behar da.

Zuk leku askotatik bizi izan duzu Korrika, ezta? Zuretzat, Korrika bizitzeko zein da onena?

Furgoneta barruan. Streamingez jarraitzea bezala da; denbora guztian han daukazu jendea, sartu eta irten, eta gidari zaren momentua, ez duzu lekukoa ikusten, baina bai jendea, mundu guztia zain, pozik, irrikaz parte hartzeko... karrera bera da. Guk esaten dugu orain gauza asko antolatzen direla Korrikaren inguruan, korrika kulturala dela, korrika txikia dela, baina lasterketa bera, gau eta egunetz ez gelditzea... hori da onena.

Esaten duzunaren ildotik, Korrikaren inguruan beste gauza

“Sarritan, inguruak esan izan digu: ‘Jo, eta zure aita, amerikarra izanda, ingelesez zergatik ez?’. Bada, berez, gu euskaldunak garelako”



pila bat antolatzen dira, Korrika kulturala, adibidez...

Bai, Korrika kulturala Korrikaren atal bat da, berez. Euskal Herriko toki askotan ez zegoen euskarazko kultur programaziorik, orduan, AEKn pentsatu genuen Korrikari jendeak egiten dion ekarpena eskertzeko opari gisa euskarazko kultura programatzea; horregatik saiatzen gara ertzetan ere, periferian, programazio kulturala bermatzen. Horri lotuta aurkeztu genuen azken edizioan

3.000 euroko sorkuntza-beka, eta hortik Badon proiektua, edizio honetan kultur ekitaldi nagusia.

Nola definituko zenioke atzerritar bati Korrika?

Definitzekotan, horrela definituko nuke: gaur egun, Euskal Herrian, euskararen aldeko ekimen erraldoiena da, eta euskal herritarrek batzen gaituena. Korrikak lortu du alderdi politiko, sindikatu eta eragile askotarikoak euskararen inguruan batzea, eta hori da egin behar duguna. Gure hizkuntza euskara bada, eta euskarak ez bagaitu batzen, eta ez bagara ados jartzen horretan, politika gutxi dago egiteko.

Kanpokoei adieraziko nieke, baita ere, Korrika ez dela gelditzen, hamabi egunetan ez garela gelditzen, eta gure muga bakarra euskararen muga dela.

Korrikan euskararen metafora moduko bat ikusten dut... Zentzu horretan, euskarak eta Korrikak, biek egiten diote abegi ona jende desberdinari, ezta?

Bai, eta aurtengo leloarekin ere, hori azpimarratu nahi izan dugu. Harro herri, bakoitza garen modukoak, bakoitza bere ekarpena eginez, zein bere iritzi, kolore eta jatorriarekin, baina euskarak batzen gaitu.

Kontatu zer esan nahi duen zuentzat Harro herri leloak.

Alde batetik, harrotasuna. Gure hizkuntza gutxiagotua dagoenez, sarritan, konplexuz bizi gara. Bada, guk erabaki dugu euskaraz biziko garela, eta harro. Uste dugu Harro herri-rekin norbanako identitatea konfirmatzen dela. Euskarak egiten gaitu euskaldun, hizkuntzak berak, eta harro gaude euskaraz bizi nahi dugulako. Eta aldi berean, lehen esandakoa, bakoitza gure ezberdintasunetatik, baina batzen gaituena euskara da. Eta herri hori sortzeko deia da leloa.

Zuk esaten duzu, "Korrika jaia bai, baina jai aldarrikatzailea".

Zer aldarrikatu nahi duzue?

Sarri Korrika hain da emozionala, eta euforia hori, poztasun hori hain da betegarria, batzuetan ahaztu egiten dugu zergatik ari garen. Lehenengo Korrikatik 44 urte pasatu badira ere, helburuak ez dira aldatu. Kontzientziario lana oraindik egiteko dago. Bai, D eredu hor dago, adibidez, baina argi dago zeozker huts egiten duela euskalduntzeari dagokionez. Badugu horretan ere lana.

Ibilbidea adosteko prozesua nolakoa da?

Urtarrilaren 11n atera genuen ibilbidea; lanketa handia eskatzen digu. Etxe barruan adostuta daukagu, Gipuzkoan amaitu zenez, Gipuzkoari dagokiola hastea. Amaierak txandakatu egiten dira, eta kasu honetan Baionan bukatuko da. Amaiera eta hasiera erabaki ondoren, ibilbidea zehazten da, irizpide hauekin: AEKren euskaltegiak ditugun herri guztiak zapalduko ditugula, hiriburu guztiak, eta zazpi probintziak. Hori guztia, eta beste gauza batzuk kontuan izanda, hilabetetako lana da.

Akatsik izaten da?

Bai, beti. Ibilbidea marraztea ez da zaila, baina gero, zer daukazu? Adibidez, guk trafikoko baimenak sei hilabete lehenago eskatzen ditugu, baina oraindik ez dakit ezer, erantzunik ez dut jaso. Eta badira momentuan sortzen diren kontuak... Azken edizioan elurtea izan genuen, eta inoiz ibaia bere ubidetik irten izana ere gertatu da.



“Gure hizkuntza euskara bada, eta euskarak ez bagaitu batzen, eta ez bagara ados jartzen horretan, politika gutxi dago egiteko”



Bi furgoneta ditugu, aurrean doana ez da inoiz gelditzen, gasolina biltegia ere goian darama; atzekoa, berriz, bai, gelditzen da. Aurrekoa matxuratuz gero, atzekoa pasatzen da aurrera. Mantenu lanak egiteko lau laguneko taldea izaten da bide osoan.

Ba al da Korrikari hain harrera ederra egiten ez dion lekurik?

Beti esaten dut gaur egun Korrikak, nolabait, goia jo duela. Eragileei dagokio-

nez ere bai, mundu guztiak nahi du Korrikarekin bat egin eta argazkian atera. Apur bat erakusleihu bihurtu da. Baina duela urte batzuk hau ez zen honela, eta boikota ere jaso izan dugu. Hasierak oso zailak izan ziren, baina aurrera atera zen eta nik uste dut gaur egun asmatu dugula Korrika guztiontzat egiten, eta guztiak ongi hartuak direla sentiarazten. Eta hala da, euskarak guztion beharra daukalako, eta hor batu behar gara.

Abiarazi, AEK-ko langileok abiarazten duzue, baina gero boluntario asko daude.

Zenbatu duzue noizbait zenbat jende mobilizatzen den?

600 kide inguru gara AEKn, hori da gure oinarria. Horretaz gain, herri bakoitzean sortzen dira Korrika batzordeak, bertako eragileekin, udaletatik bultzatuta batzuetan, edo AEK-ko kideek deituta, baina ezin da jakin. Jendea korrika egitera batzen da, gero badoaz, itzultzen dira... kontaketa zaila da. Donostian amaitu zen azken edizioan, adibidez, 80.000 lagun inguru bildu ziren. Zuzenean edo zeharka, Euskal Herriaren zati handi batek hartzen du parte.

AEK finantzatzeko iturri garrantzitsua da Korrika.

Bai, AEK-k Korrika barik ezin du aurrera egin ekonomikoki. EAEn, Nafarroan, eta Ipar Euskal Herrian, hiruretan, egiten dugu lan, eta adostuta daukagu baldintza berdinetan egingo dugula lan, baina leku guztietan diru-laguntzak ez dira berdinak, eta Korrikari esker parekatzen dugu hori guztia.

Zein dira AEK euskaltegiaren helburuak?

AEKren helburua da euskaraz eroso bizi ahal izatea. Euskaraz bizi nahi dut



“Euskaraz bizi nahi dut leloa ondo dago, bai, baina eroso bizi nahi dut, eta ez lubaki batean egongo bagina bezala”



leloa ondo dago, bai, baina eroso bizi nahi dut, eta ez lubaki batean egongo bagina bezala. AEK-k eroso bizitzea bermatu nahi du.

Eta nola egiten duzue? Zenbat jenderi ematen dizkiozue eskolak?

Gaur egun, 10.000 ikasle inguru dauzkagu. Aholkularitza zerbitzua ere badaukagu, Euskal Herri osoan. Irakurketa positiboa egiten dugu, baina badakigu

hizkuntza politika hobeak behar ditugula; adibidez, benetako doakotasuna.

Zeren eta euskaraz ikastea doakoa dela esaten da, baina ez da horrela, ikasleek dirua aurrerratu behar dute. Azterketa gaituz gero itzultzen zaie dirua. Orduan, euskalduntzearen prozesua, soilik azterketetara bideratu behar dugu? Ikasleak, lehen, benetan euskaldundu nahi zutelako etortzen ziren, euskara ikastera, euskaraz bizitzera, kulturaz interesa zutela. Gaur egun, ordea, dena da "eman papera".

Doakotasunari dagokionez, ba al dago aurrerapenik?

Bai. Aurten, adibidez, lerro berri bat atera da, 20 euroko matrikularen truke 16-18 urte bitartekoek C1 titulua eskuratzeko aukera ematen duena, eta oso emaitza ona izan du, jende asko gerturatu da. Baina guk behar dugu ezer ez dakienarentzat hasierako maila doan izatea, euskalduntzeko bide osoa egin behar duen jendearentzat, batez ere. ●

23.Korrikan zure herriko kilometroa ikusi nahi duzu?

www.hamaika.eus/23korrika

Sartu eta egin erreserba

Bideoa bidaliko dizugu prest dagoenean!



Gizartearen logika algoritmikoarekin, gizakiak esplotatzen jarraituko dugu

Adrián Almazán

Fisikan lizentziatua eta Filosofia doktore, Gasteizen du ohiko bizitokia Adrián Almazánek (Madril, 1990), baina egun Madrilgo Carlos III Unibertsitatean ematen ditu klaseak. Digitalizazioak ingurumenean, energian eta gizartean sortzen dituen eraginak izan ditu aztergai eta *Contra la doctrina del shock digital* liburuan laburbildu ditu. Donostian IBMk jarri nahi duen superordenagailu kuantikoaren harira hitzaldia eskaini zuen, Satorralaiak eta kide den Ekologistak Martxanek antolatuta: "Apustu bat baino ez da, apustu espekulatibo bat".

 URKO APAOLAZA AVILA  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Sarritan esan digute digitalizazioa giltzarri dela trantsizio energetikorako, baina *Contra la doctrina del shock digital* (Shock digitalaren doktrinaren kontra) liburuan justu kontrakoa dela diozue, zergatik?

Normalean esaten da digitala efizienteagoa dela, prozesuak optimizatuko dituela eta ekonomiak duen pisu materiala arinduko duela, hazten jarraitzeko. Baina errelato horrek baditu bi arazo. Efizientziaren ideia ez dela hain sinplea badakigu *Jevons paradoxa* formulatu zenetik, ikatzarekin ikusi zen lehen aldiz: efizientzia gehiagok ez du esan nahi materiala aurreztuko duzunik. Hori gertatzen da adibidez autoen efizientziarekin, gasolina gutxiago kon-

tsumitzen dutenean: merkeagoa denez autoak gehiago erabiliko dira, eta denbora gehiagoz; horrek globalean kontsumo maila handiagoa izatea ekar dezake azkenean.

Eta zein da beste arazoa?

Ustezko desmaterializatzearekin du zerikusia. Kapitalismo industrialak badu ekuazio oso konplikatu bat, hazkunde ekonomikoa, energiaren kontsumoa eta aztarna ekologikoa korrelazio lineal batean -hau da, proportzionalean- jartzen dituen, eta historikoki ekuazio hori ez da inoiz hautsi. Baina orain esaten da baietz, digitalizazioarekin desmaterializatu ahal izango dela, nahiz eta ez den asko pentsatu behar ikusteko hori proposanda hutsa dela.

Digitalizazioak ere material asko behar du, mineralak barne.

Guk erlazio oso estua daukagu gure gailuarekin, baina aldi berean oso motza. Hortik harago ez dugu ezer ikusten, baina gailu horiek lehengai askoren menpe daude eta hasieratik kopuru oso handiak erazten dira. Oraintxe argitaratu da Siddharth Kararen *Cobalt Red* liburuen itzulpena gaztelaniaz (Capitán Swing, 2023) eta hor oso argi azaltzen da Kongoren kasua. Kobaltoaren munduko erreserben %75 dauka, eta hori erazteko eskuz egindako meatzaritza, haurren lan-esplotazioa, kutsadura toxikoa eta gaixotasunak jasan behar dituzte hango herritarrek.

Eta materialaz gain, energia fosila ere behar da.

Erauzketan energia asko kontsumitzen da, baita materialen garraioan, fabrikazioan eta erabileran ere. Gero gailuak hondakin bihurtzen dira eta horrek deslokalizaturiko inpaktu ekologikoak ere sortzen ditu Ghana bezalako herrialdeetan, han amaitzen baitute. Ezin dugu gure mugikorra saretik banandu: lainoa elkarri konektaturiko gailuak dira, eta beraz, energia asko behar dute, eta sistema fosil batean inpaktu klimatikoak dakartza bereziki horrek, baita orokorrean ekologikoak ere.

Esaten dute Europak "aliantzak" egin beharko dituela mineralak eta lur arraroak dituzten herrialdeekin. Hitz



horrek ez al du beste kolonizazio prozesu bat ezkututzen?

Nik kasu batzuk eta besteak ezberdindu nituzke. Alde batetik betiko neokolonialismoa dago, eta Kongo da horren erakusgarri adibidez. Gero badaude beste kasu batzuk, "litioaren triangelua" deiturikoa bezalakoak esaterako, Txilek, Argentinak eta Boliviak osatzen dutena. Hor ere estrategiak ez dira berdinak: Mileiren Argentinak atea ireki dizkie nazioarteko industria pribatuei, eta Boliviak aldiz, ekoizpenean burujabe izateko pausoak eman nahi ditu. Txina da kasu bereziena, Indiarekin batera, menpekotasunetik atera eta zentraltasun geopolitikoan lortu baitu. Lur arraroetan ia monopolioa dauka Txinak eta mugimendu bitxia ikusi dugu: eolikoentzat oinarritzeko den material hori esportatetik, eolikoak merkaturatzera pasa da, eta orain, Europa, lehengai gordina eta merkea erosi beharrean, azken produktua erostera derrigorturik dago.

Digitalizazioaren atzean geopolitika ere badago orduan?

“ ”

“Guk erlazio oso estua daukagu gure gailuarekin, baina aldi berean oso motza. Ez dugu harago ezer ikusten, hasieratik material kopuru handia erauzten den arren”

Eta gerra. Konputazio kuantikoa, adimen artifiziala, datuen prozesamendu masiboa, bideozaintza, automatizazioa... Digitalizazioaren paradigma guztiak estrategikoak izan dira militarrentzat. Adimen artifizialarekin zerikusia duen guztia gako geopolitikoetan ulertu behar da. Ideia bat egin dezazun zein garrantzitsua den: Txinak teknologikoki gainditu ez ditzan, AEBek adimen artifizialerako esanguratsuak diren teknologien enbargo agindu dute. Badakite zenbait teknologiara sarbide pribilegiatua edukitzea

zein garrantzitsua den gerrarako posizio on bat edukitzeko.

Lainoaz hitz egin duzu, badirudi birtuala dela eta ez duela kutsatzen, baina esan izan duzu internet "gizakiaren historiaren azpiegitura handi eta konplexuena" dela.

Masa aldetik ez dakit, baina kualitatiboki bai. Planeta osorako azpiegitura da, agian errepide sareak baino askoz zabalagoa, eta beharrezkoa da itsasazpiko kable sorta oso-oso handi bat izatea, lurrean interkonexioak dituenen –Bilbon daukaguna bezalakoak– eta elkar konektaturiko zerbitzari pila bat martxan edukitzea ere bai, erreduantzia behar baita datuen galerarik ez egoteko.

Azkenaldian sateliteak ikusten ari gara izarrak baino gehiago.

Kuriosoa da, horrek baduelako klima larrialdiarekin lotura. Nahi izanez gero, interneten zabalkundearen historia politiko bat egin ahal izango litzateke. Lehenik esperimentu militarrik izan ziren; gero garapen zibila etorri zen, eta horrekin es-



tatuek itsas-hondoan kableak eraikitzea sustatu zuten; eta orain sateliteen aroan gaude, baina ekimen pribatuaren eskutik. Aldaketa klimatikoak zalantzan jarri du itsasertzeko azpiegituren iraupena, kableak gerra-helburu ere bilakatu dira, eta bitartean, sateliteak enpresa handi batzuen jabetzan geratu dira.

Zerbitzari erraldoiek elektrizitatea behar dute, baina ura ere bai, zertarako?

Ahalik eta tenperatura baxuenean mantendu behar dituzte, beraien erregimen konputazionalarekin bateragarria izateko. Pentsa ezazu zerbitzari hori 24 orduz martxan dagoen ordenagailu bat dela, gehiegi berotzen amaitu dezake. Eskandinaviako herrialdeetan espekulazio burbuila bat izan da instalazio horiek eraikitzeko.

Zeri erreparatzen diote fabrika horiek non eraiki erabakitzeko garaian?

Arrazoi ezberdinak daude. Eskandinaviak adibidez klima hotzagoa du, eta horrek energia gutxiago erabili behar izatea dakar, kostu gutxiago alegia. Beste toki batzuetan ur kopuru handia dute eta hozte-sistamarako erabiltzen da. Txipen fabrikekin gauza bera gertatzen da, ur kopuru handia behar dutela. Oraintxe bertan Grenoblen badago gatazka handi bat horrekin.

Donostiako superordenagailu kuantikoak materialak simulatzeko, energia biltegitartzeko eta botika berrientzako balioko omen du.

Honi lotuta, niri interesatzen zaidan ez-

“”

“Superordenagailu kuantikoak arrakasta badu, jarraituko dugu erreproduzitzen alimaleko kontsumo horiek eta big data kopuru handiak”

tabaida da zeri eman nahi diogun lehen-tasuna. Klima gero eta ezegonkorragoa dugu, energia eta material falta... eta zer egingo dugu horren aurrean? Manu Robles-Arangiz Fundazioarentzat trantsizio ekosozialei buruz egin genuen txostean ondorioztatu genuen automozioa bezalako trakzio-sektoreak heriotzara kondenaturik daudela Hego Euskal Herrian. Superordenagailu kuantikoarekin iruditzen zait norabide berean jarraitu nahi dugula, aurrerapenean eta teknologian konfiantza itsua jarrita, soluzioa direlakoan. Eta zer nahi duzu esatea, 120 milioi euro inbertitzea ez dakigunean zertarako balioko duen...

Hitzaldirako MITeko (Massachusetts Institute of Technology) *Technology Review*-ko artikuluak begiratzen aritu naiz eta 2022an oraindik aurkitzen dituzu konputazio kuantikoko adituak esaten hau *hype* bat dela, burbuila moduko bat, interes zientifiko handia duena, baina baliotekeela bideragarria ere ez izatea inoiz. Hala ere, arrakasta badu, jarraituko du erreproduzitzen alimaleko kontsumo horiek, *big data* konputu gero eta gehiago

edukitzea, gizartearen logika algoritmi-koarekin eta beste logika perbertso batzuekin jarraitzea: energia kontsumoaz ari baikara, baina gizakiaren esplotazioaz ere bai.

Adimen artifizialaren atzean prekaritatea ere badago?

Entrenamenduen zati ezinbesteko bat lan prekarioen bidez egiten da, gorputz asko ditu atzean lanean. Badago jende bat erabaki behar duena *input* baten aurrean *output*-ak zein izan beharko lukeen, zer den egokia eta zerk ez duen zentzurik, Facebook bezalako sare sozialetako edukien kontrolarekin gertatzen den bezala. Hegoalde Globaleko pertsonak dira normalean, orduko euro bat irabazi dezaketena soilik. Esplotazio horretan jarraituko genuke, kezkarria den norabide sozial bat urratzen. Eta zeinek du interesa gizakiaren lana, lan algoritmiko batekin ordezkatzeko? Hori soilik egiten da enpresa pribatuek etekinak handitu ditzaten.

Superordenagailu hau IBM korporazioarena da, eta beste zerbitzari batzuk Google eta antzeko erraldoienak. Non geratzen da teknologia burujabetza honetan guztian?

2020an digitalizazioan azeleragailua sakatu genuenetik, burujabetza horren lagapena erabatekoa da. Hezkuntzan Google Classrooma sartu dute, eta beste zerbitzu zibil askotan software pribatuak erabiltzera derrigortzen gaituzte; laster iPhone bat izatea obligazio bihurtuko zaigu... Baina ez da titulartasun kontu bat bakarrik, sakonagoa da: jar-

duera guztia interfaze batera murriztu dezakezu eta horrek asko pobretzen du giza esperientzia.

Adibidez, zer da harreman bat Tinder bezalako aplikazio batentzat? Item multzo bat. Kaxa beltz bat sortzen da, jabetza pribatukoa, eta ez dakigu nola neurtzen diren gauzak hor barruan, baina badakigu diru gehiago duenak gehiago izango duela irabazteko. Eta zer pasatzen da justiziarekin edo hezkuntzako ebaluazioekin gauza bera egiten bada? Hori guztia martxan dago, gertatzen ari da, eta objektibotasun moztuarekin aurkezten dute, algoritmoak “erabaki” duelako.

Adimen artifizialaren leherketa honek nola eragin du zuen tesietan?

Probabilitatean oinarrituriko ideia Google bezain zaharra da. Orain lehertu direna adimen artifizial sortzaileak dira, lehen aldiz sortu ditzakezula testuak eta irudiak modu erraz batean. Zalantzak genituen zenbait gauza egin ote zitezkeen, baina ikusi da baietz. Horrek esan nahi du gure tesia okerra zela? Guztiz kontrakoa, indartu egin ditu inpaktu metabolikoez genituen ideiak. Open AI-k adimen artifiziala dohainik eta denen eskura jarri zuenean, hainbesteko energia

eskaria jaso zuen, neurri drastiko bikoitza hartu behar izan zuela: edo kobratu, edo bertsio hobetuan eskaintzen zituen prestazioak murriztu; bestela zerbitzariak erortzen zitzaizkien kontsumoagatik eta ekonomikoki ez zitzaien errentagarri ateratzen.

Lehenago ordezkapenaz hitz egin duzu, makina hauek lan guztiak ordezkatzeko gai izango dira?

Eztabaida hau XIX. mendetik dator, baina 1960ko hamarkadan hartu zuen indarra, ez digitalizazioarekin, automatizazioarekin baizik. Lehendabiziko robot produktiboek, lan eskua ordezkatu eta jabegoaren klaseari botere gehiago emango ziotela uste zen. Langilea soilik exekutatzailer bihurtzen zen, desplazaturik eta grebarako gaitasunik gabe, bere jakintza jadanik ez zelako ezinbestekoa. Ordezkapenaren gaiarekin beti egon izan da nire ustez *snob* kutsua duen posizio bat, esaten duena ez zaiola beldurrik izan behar adimen artifizialak lan intelektuala ordezkatzeari, “makina batek ezin izango duelako inoiz gizaki batek egiten duena egin”. Ni ados nago azken horrekin, baina hori ez da oztopo izan neurri handi batean eskulana ma-

kinizatzeko. Artisau batek beti egingo du makina batek baino lan hobea, beraz ezin da esan soberan dagoenik, noski; baina arazoa da makina bat orokortzean artisauaren lanak ez duela irteerarik, ezin baitu prezioan lehiatu. Horregatik, azkenean produktu industrialak orokortzen dira, eta ahaztu egiten zaigu eskulanaren alternatiba badagoenik ere... Ordezkapen moduko bat da.

Existitzeari uzten badio bai.

Kalitatez eskasagoa izango da? Bai, baina horrek norbaiti inporta dio? Ez.

Eta ze ondorio izan ditzake sozialki?

Berebiziko garrantzia du, deslotzen direlako jarduera horretatik kreatibitate eta eraldaketa soziala. Adibidez, XX. mendean ikusi dugun artearen eta aldaketa sozialen arteko konexiorik ez genuke izango. Baina hori zeini inporta dio? Nik esaten dizut ordaindu behar duen jendeari ezetz. Horregatik, interesgarria da ikustea sektore batzuk, aktoreen sindikatuak adibidez, nola ari diren mobilizatzen kontziente direlako; baina, salbuespenak badauden arren, beste sektore batzuetan gogotsu besarkatu dute hori guztia. Muga horretan gaude. ●



Eguneroko keinu txikiekin, energia aurreztu dezakegu

EUSKADIKO ITUN BERDEA

ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA
ENTE VASCO DE LA ENERGÍA

Euskadi, nuzolan, bion eman

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EROKUNTZEN GURUPEN, ENERGIAREN ERAKUNDEA
EUSKAL ERKUNTZA
EUSKAL ERKUNTZA
EUSKAL ERKUNTZA
EUSKAL ERKUNTZA

www.eve.eus

PLANTAINA



GARBIÑE LARREA
ITURRALDE

Bortxain-belarra, bost-zainetako belarra, zaintiratu-bedarra, zain-belarra edo plantainaz ariko naiz gaur. Gutxi izango dira hain ugariak eta hala ere ezezagun handia dugu, begiz ezagutzen dugu baina zertaraino baliagarri zaigun oraindik ez dugu probatu ziurrenik.

Senide asko dituen familia da plantainarena. Ikerketa farmakologiko eta kliniko gehien plantaina arra edo ezpata-plantainarekin (*Plantago lanceolata*) egin direnez, hau hartuko dut eredutzat. Antzeko osaera eta propietateak izan ditzaizkete hainbat espezie daude, plantaina emea edo plantain handia (*Plantago major*) izanik ezagunena. Baliokidea izan liteke baina ez substantzia aktibo eta jarduera terapeutiko guztietan.

Amabirjinak behiala plantaina hautatu omen zuen kristau guztien minak sendatzeko, hala dio Althabek jasotako esaerak (“Amaberjinak bestordüz haitatü zin plantaña khiristi ororen minen sendotzeko”). Askotxo esatea iruditzen zait baina egia da kristau eta ez kristau askoren minak sendatzeko balio duela.

C bitamina, zinka eta potasioa, azido azetilsalizilikoak, muzilagoak, saponinak, pektinak, taninoak, alkaloideak eta glukosido kromogeniko bat dituela badakigu. Horiei esker gaitasun antiinflamatorioa, astringentea, orbaintzailea eta antihistaminikoa ditu. Arnas bideetarako famatzen da, mintzak baretzen gutxi direlako bera bezain onak. Mukiak kanporatzeko, eztarriko mina baretzeko, marranta edo katarroa ditugunerako xarabea eduki behar genuke etxean. Asma eta bronkitisa dituenarentzat ere egokia da, epe ertain eta luzean erabiltzeko aproposa baita, kronikoak izan ohi diren gaitzetarako ona, beraz.

Berriki joan zaigun Gorka Setienek ekarpena eginez idatzi zidan: “Txikitan



DANI BLANCO / ARGIA - CC-BY-SA

kukutxeztula plantainarekin sendatu nuela jakinarazi nahi nizuke. Bidaurrzaga medikuak erakutsi zion gure amari plantainak freskotan likuadoratik pasa eta basotxo batean ezti koilaratxo batekin nahastuta prestatzen. Egunean behin hartzen nuen”.

Arnas bideetarako hartzen hasi eta, oh sorpresa, digestioa egiten laguntzen diola ikusi du askok. Izan ere, hantura ororen kontrako lana egiten du eta urdailari gastritis zein ultzera kasuetan asko laguntzen dio. Beherakoak izateko joera duenari heste lodia baretzen dio, hala heste narritagarriaren zein minberaren sindromea dutenentzat bereziki egokia dela ikusi da berriki. Urdaileko mina tratatzeko maiz kamamila (*Matricaria chamomila*) hartzera jotzen dugu baina plantaina kamamillarekin hartuta ikusiko genuke askoz erremedio hobea ari garela hartzen.

Orain udaberrian boladan jarriko dira hamar eguneko arroz janak, *detox* berdeak eta gibel garbiketa ez oso gomendagarriak, digestio aparatuari egurra eman eta lehen zegoena baino estresatuago uzteko, ez beste ezertarako, asmatuak. Halakoren baten ondoren bere burua gaizki ikusten duenak hortxe dauka plantaina zain; goizero har dezala infusioa baraurik, hiru hila-beteen jarraian.

Uda iristen denerako ere eduki behar genuke plantaina. Neguan barne erabileran bezala udan kanpo erabileran lagunduko digulako plantain oleatoak edo ukenduak. Izan ere, zauriak, babak, erredurak, intsektuen ziztadak eta urradura zain kolpeak oso ondo sendatuko dizkigu.

Uterotonikoa denez, haurdunaldian eta edoskitzerakoan ez da gomendatzen. ●

A ZE FAUNA!

BASOKO AROTZ MIHI-LUZEA



NEREA PAGALDAI AGIRIANO
ARANZADIKO KIDEA



Basoan barrena oinez joan eta hara, 'krukrru-krru' ozen bat entzun da. Bi aldeetara begiratu... Nor ote? Okil beltza hegan. Ez da hegazti txikia eta kolore beltza du, beleak bezala. Antzeko tamaina eta kolore bera dute bi hegazti horiek, horregatik da agian Sakanan galarbele gisa ezaguna. Baina okil beltzak, beleak ez bezala, hegakera nahiko zuzena du. Bere moko zuriak punta grisa dauka eta arrek txano gorria daukate; emeek, aldiz, garondoan bakarrik dituzte luma gorriak.

Enborrean gora eta behera mugitzeko aparteko trebetasuna du espezie honek bi ezaugarri esker: X itxuradun atzapar bereziak eta tripode lana egiten duen isats gogorra. Egurrean zuloak egiten tre-beak dira, azpiko geruzetan aurkitzen diren har eta zomorroak bilatzeko. Enborra zulatze gaitasun hori okilen familiako kide gehienek daukate. Baina okil beltza, guztietan handiena izanik, enborrak txikitzen izugarri trebea da. Basoan entzun genezake okilek enborra zulatzean egiten duten soinua. Okilak bere mokoarekin egunean 12.000 kolpe jo ditzake enborrean, a ze potentzia! Eta hori guztia kalterik jasan gabe, noski. Baina nola da posible buruarekin egurrari kolpeka ibili

eta sano bukatzea? Okilen familiako kide guztien buruek daukate kolpeen dardaratetik babesteko sistema bat. Alde bateatik, moko zorrota izateaz gain, azpiko zatia luzeagoa da goikoa baino, horrela, inpaktuaren energia beheko aldean kontzentratzen da, garezurretik aldentuz. Gainera, garezurrean espazio libre gutxi daukate, beraz, kolpea ematerakoan burmuina ez zaie asko mugitzen. Bestetik, airez beteta dauden hezur harroak dituzte, inpaktua ematen denean hezurra apurtu beharrean deformatu dadin. Eta azkenik, bere mingainak garezurreko hezur elastikoak dardaratik babesten ditu.

Baina nola da posible mingainak garezurra babestea? Ba hara, okilen mingaina berezia da: oso luzea da eta beste hegaztiak ez bezala, kanporantz hainbat zentimetro atera dezakete. Eta non gordetzen du hain mingain luzea? Gezurra badirudi ere, hori sudur zuloetan hasten da, begi artetik pasatzen da, garezurraren atzedera doa eta ondoren azpitik ahoraino. Hau da, mingaina garezurrean kiribilduta dago eta honi esker okilak enborra kolpatzen duenean mingainak garezurraren motelgailu funtzioa betetzen du, hura babestuz. Baina hori ez da mingain honen funtzio bakarra: enborrean eginiko zi-

OKIL BELTZA

Drycopus martius

TALDEA: Ornoduna / Hegaztia.

NEURRIA: Mokotik-isatsera 40-46 cm.
Hego-luzera 67-73 cm.

NON BIZI DA? Baso helduetan.

ZER JATEN DU? Intsektu saproxilikoak, inurriak, fruitu eta zuhaitzen izerdia.

BABES MAILA: Europan zorrozki babestuta dago.

rrikituen gune sakonenetan ezkutetzen diren zomorroetaraino heldu daiteke. Mingaina estua izateaz gain, arantza moduko batzuk ere baditu, horiekin intsektuak hobeto harrapatu eta azalera ekarri ahal izateko. Listu itsaskorra du gainera, enborrean zirrikituetan dauden zomorroak bertara itsatsi daitezten.

Okil beltzak orokorrean pagadi eta baso misto atlantikoak ditu gustuko, baina beste baso edo landaketa mota batzuetara ere egokitu daiteke, Monterrei pinu landaketetara kasu. Basoek helduak izan behar dira, espezie honek behar-beharrezkoa duena egur hila baita. Zuhaitzaren adar bat, enborrean zati bat edota zuhaitz osoa hiltzen denean eta ondoek egurra bigundu ostean, intsektu saproxilikoak betetzen da. Intsektu saproxilikoak, beraien bizi zikloa aurrera eramateko egur hila behar duten intsektuak dira, okil beltzaren gustukoena. Inurriak ere jaten ditu, baita fruituak eta zuhaitzen izerdia ere.

Espezie honek dituen arrisku handienak honakoak dira: ehiza, pestizidek eragindako elikagai-eskasia eta zuhaitz zaharrak kentzen dituen baso-ustiaketa. Zuhaitz zaharrei esker dago egur hila basoan. Hildako egur horrek izugarriko biodibertsitatea dakar, bertan sortzen diren zuloak animalia espezie askorentzako babesleku edo habia direlako, batetik. Eta bestetik, aipatutako intsektu saproxilikoek presentzia bermatzen dutelako, eta ondorioz, horietaz elikatzen diren espezieena ere bai, okil beltza esaterako. ●

ZUHAITZAK ETA ARBOLAK ZURI



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Soildu egiten du paisaia. Udazkenak erantzi eta soildu egiten du landare asko, eta horien ikusbide nagusia den paisaia. Udaberri eta uda jantzietan antzeman ezinekoak diren ikuskinak agertzen dira, adarjearen eta enborren kolore eta forma negutiarrak iraupen gutxiko artelanak dira.

Zuhaitzek eta zuhaixkek adakera berria dute neguero, oreinak bezala. Zuhaitzetan eta arboletan harrigarriagoa zaigu; beti bera eta berdina dela dirudi, baina urtetik urtera hazi egiten da, luzatu, zabaldu... Eta bere inguruan, bere azpian, bere gainean bioaniztasuna ere handituz doa. Zuhaitz bakoitza hurbiletik sakon eta zorrotz arakatuko bagenu, ekosistema oso bat dela jabetuko ginatke, unibertso bat. Lurpekoa litzateke mundurik aberatsena, baina lurgainekoa ere ez da urria; badu makina bat bizikide, bidaide, neke lagun, jolaskide, bekatu lagun eta batez ere lankide: onddoak, bakterioak, intsektuak, ugaztunak, narrastiak, txoriak eta hegaztiak eta abar luze, sakon eta mantso bat.

Zuhaitzaren neguari ezikusiarrena egiten diogu, baina ikusgarria da. Ikusi eta aditzeko modukoa. Hor da agertzen, hor da erakustaldian, bere gotorrean azal-bizirik, nabarmenkerian, exhibizionista. Eta gu ezikusiarrena egiten, zuhaitzak eta arbolak hostotan, kimu berritan, loretan, fruitutan dirudigu zer. Baina nor, orain da nor, azal-bizirik eta hura kurtxila eta gurtxinga tartean distiratsu erakusten.



JAKOBA ERREKONDO / ARGIA-CC-BY-SA

Zein liken bizi den arabera ezagutzen dute zientzialariek ingurune horretako airearen kalitatea; likenak dira arnasaren kalitatearen neurria.

Azalean ere badu, zuhaitzak apopilo, adiskide eta aialdeko. Zenbaitzuk oso nabarmenak, laino eta laino arteko errainuen kortxintak aparteko dir-diraz distirarazten dituen likenak, adibidez.

Likenak izaki xebreak dira, konposatuak, bitarrak, ez horregatik bipolarrak: onddo baten eta alga baten el-karketa dira. Sinbiosian bizi dira, bata bestarekin etengabeko eman-hartuan. Hezetasuna dagoen tokian bizi ohi dira eta zein liken bizi den arabera ezagutzen dute zientzialariek ingurune horretako airearen kalitatea; likenak dira ar-

nasaren kalitatearen neurria. Gu baino lehenago jakingo zuten hori zuhaitzek eta bere soinean, azalaren axalean, os-tatu ematen diete. Eta egun argia luzatzen ari den otsail honetan errainuei erakusten dizkiete eta sagasti, harizti, arantzadi beltz, mizpiradi eta abar zuri ikusten dira. Ikuskizun.

Zuhaitzek eta arbolek soineko zuria erakusten diete oraingo hozkirriari. Liken asko eta asko zuri, laru, grisaxkak dira. Merezi du begiratu eta ikustea. Gero berokoak: hosto, lore eta abar nabarmenegiak... ●

AGHARAS ELKARTEA

KULTURARTEKO ORTUA, BARAKALDOKO GURUTZETA AUZOAN**GARAZI ZABALETA**
@TIRIKITRANN

Amazigh gazteek sortutako elkarte da Agharas, eta urteak daramatza kulturartekotasuna lantzen Barakaldo inguruan. Duela lau bat urtetik, kalean bizi diren gazteei astean hirutan aforiak ematen dizkiete, eta harrera pisu bat ere badute martxan, aldi baterako erabiltzeko. “Bi ardatz horiei tiraka, eta kulturartekotasuna lantzeko esparru berriak irekitzeko asmotan, ortua martxan jatzea pentsatu genuen”.

LURSAIL MALDATSUAN, TERRAZAK

Barakaldoko Gurutzeta auzoan ari dira 3.000 metro koadro inguruko lursailean lanean. “Lurzoru nahiko maldatsua da, eta terrazak sortzen aritu gara, dena eskuz eginez”, diote kideek. Lurra lantzen hasi baino lehenago, atontze lan handia egin behar izan dute, inguru guztia sasiak hartuta baitzegoen. Aurreko udan, jada, prestatua zeukaten lur zatitxo batean barazki ekoizpen txikia izan dute. “Oraindik lurra prestatzen jarraitzen dugu, baina udaberriko landareak jartzen ere ari gara”, diote.

Alokairuan hartu dute Gurutzetako



lursaila, eta horretarako, Bizilur elkarrearen laguntza izan dute. “Eurek garatutako proiektu baten bidez, laguntza ekonomiko pixka bat jaso dugu, eta baita trebakuntza ere”. Hurbileko baserri-tar baten eskutik ari dira formakuntza jasotzen. Azken hilabeteotan, hainbat auzolan egin dituzte lanak aurrera eramateko eta landaketak egiteko. “Sagar-rondoak jarriko ditugu batez ere, ortua egiteko gunee aproposak ez diren toki horiek aprobetxatzeko”, diote.

ORTUA LANTZEKO HEMENGO ETA HANGO TEKNIKAK

Maroko hegoaldeko Amazigh herrietatik migratu duten gazteak, Barakaldon bertan jaiotako herritarrak, beste herrialde batzuetan jatorria dutenak... aniztasuna da nagusi Barakaldoko ortuan, bai jatorriari eta baita adinari dagokienez: “Gure ortuan, askotan, lau hizkuntza entzuten dira aldi berean, eta adin guztietako jendea elkartzen gara, 18 urtetatik 50 urte inguru dituztenetaraino”. Amazighak landa eremuko komunitateak dira, eta kasu askotan, migratzaileek faltan nabari dute lurra lantzea. “Migratzeko dituzten arrazoen artean pisutsuenetako bat da hango landa eremuan eredu hiperproduktibista bat garatzen ari dela: lurjabeek uraren kontrola lortu dute, eta gazteek ez dute etorkizun handirik mundu horretan”, diote.

Haiek dakarten jakinduria besteenarekin uztartzen saiatzen dira proiektuan, teknika eta erritimo desberdinak errespetatuz eta elkarrekin negoziatuz. Eredu ekologikoan ari dira, eta oraindik ekoizpen txikia badute ere, elkarrekin antolatzen dituen afariak eta pisua hornitzea dute etorkizuneko helburu. “Egunerokoan hamar bat lagun ari gara, baina, auzolanetan 20-25 lagun bildu gaitzke”, amaitu dute. ●



“*Ekoizpen ekologikoak bermatzen digu naturaren baliabideak zaintzen ari garela, eta hori onura da gizarte guztiarentzat.*”

EDORTA SALVADOR
Okintza-prozesuetako aholkularia
eta irakaslea, IRUÑEA

**ETORKIZUNA
EKOLOGIKOA DA
aurrera goaz!**





Katalunian ARGIA EKOEDIZIOAZ

Otsailaren 23an, ARGIAk Katalunianeko Ekoedizioaren Institutuak antolatutako *Parlament de l'Ecoedició* jardunaldietan hartu du parte. ARGIA duela hilabete batzuz geroztik da Institutuko bazkide. Bazkideen artean ARGIA da heldabide bakarra (argitaletxeak eta banatzaileak dira besteak), eta era berean, Kataluniatik kanpokoak.

ARGIAk jardunaldietan azaldu du zergatik hasi den argitalpenak ekoeditatzen. Ekoedizioak ARGIAren balioekin bat egiten du eta balioak praktikara eramateko aukera egokitzen hartu du bide hori. Helburua hondakinak murriztea eta ingurumenari egindako kaltea gutxitzea da. Bide horretan, ARGIAko kideak orain arte emandako pausoak eta aurrera begirako erronkak kontatu ditu jardunaldietan.



Hilero Larrungo maldan gora

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Hala daramatza ia hamar urte Joseba Larratxe 'Josevisky' marrazkilariak, 2015ean ARGIAren *Larrun*, hileroko gehigarriaren azaleko ilustrazioa egiteko enkargua jaso zuenetik. Bizpahiru lehenago hasi zen lan txo batzuk egiten marrazkilaria etxe honetarako. Ondo gogoan du Ander Gortazarrek *Urtekarirako* egin beharreko erreportaje baten ilustrazioa egiteko proposatuta hasi zuela ARGIAren bere ibilbidea. Orain, *Larrun*-en 96 azal ilustratuta, 100.a ospatzea du helburu.

Dutxa du inspirazio-iturri. Hala aitortu digu eta niri harrigarri xamarra egiten bazait ere, ez da dutxan asko pentsatzen duela esan didan lehena. Kuriosoa, lekua. Oraingoz mugikorrik bustitzen ez dugulako izango da? Ni burua bustitzean baino, oxigenatzean pentsatzen duen jende-klasea naiz –paseatzera joaten naitzenean, adibidez, ideia zaparrada izaten dut batzuetan–; baina artikuluaeren mui-

netik gehiegi alden du aurretik banator *Larrun*-en magalera bueltan. Hilean behingo lana kontuan hartuta, ilustratzaileak bere lana aurkeztu baino bi aste lehenagorako eskatzen dio kazetariari edukiaren gaia. Behin-betiko testua normalean oraindik prest ez badago ere, ideia batzuk. Egoerarik onenetara jota, izenburua. "Atsegin dut azalean joango den testuarekin marrazkian jolas egitea", azaldu digu. Kazetariak ere klase askotakoak daude eta badira azken ordukoan adituak. "*Larrun*-en zirrara horixe da, batzuk fin-fin egiten dituzte etxeko lanak eta beste batzuek, berriz, azken unera arte luzatzen dute; baina tira, ez gara sekula inprentara ailegatu gabe geratu", kontatu digu barrez Larratxek.

NOLA EGITEN DU LAN MARRAZKILARIAK?


"Paperaren gainean pentsatzen dugu ilustratzaileok", esan dit. Asko gustatu

zait. "Buruan dugun ideia gauza bat izan ohi da, baina ez da jakiten paperean nola geratuko den; beraz, zirriborroak eginez pentsatzen dugu, agian bi zirriborro nahastuz, ideia batetik beste bat ateraz... nire kasuan behintzat bai", zehaztu dit.

Eta dutxako anekdota gezurra izan gabe, baina konexioaren garaira etorrira, sare sozialetan jarraitzen dituen munduko marrazkilari piloaren inspiraziotik ere edan ohi du, normala denez. 'Inspirazioa' karpeta du ordenagailuan, hain justu, gustuko dituen irudiak gordetzeko. Horra jotzen du sarritan, "trazu edo kolore eskema berrien bila". "*Larrun*-en kasuan kolore eskema abstrai-tuetara jotzen dut, errealitatetik pixka bat alden du eta irakurlea ideien mundura gonbidatzeko", azaldu du.

Datozen bizpahiru *Larrun*-etan bere eskua antzemango ez baduzu ere, irakurle, lasai, laster izango dugu bueltan Josevisky eta ospatuko dugu 100. azala. ●

Ahantzuraren gaixotasuna



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Frankfurt (Alemania), 1901. Alois Alzheimer psikiatra eta neurologoak Auguste Deter pazienteak ikusi zuen lehen aldiz. 51 urteko etxeandrea alemaniarra kasu arraroa zen. "Pazientea eserita dago eta babesgabe dirudi" jaso zuen Alzheimerrek idatziz: "Nola duzu izena? Auguste. Nola du izena zure senarrak? Auguste, uste dut. Galdera ulertzen ez duela dirudi".

Garai hartan Alzheimerrek uste zuen gaixotasun psikiatrikoak beste gaixotasunak, gorputzeko gaixotasunak bezalakoak izan zitezkeela, eta hori probatzeko kasu baten bila zebilen; Auguste Deterrek eman zion aukera. Oroimen eta ulermen galera, afasia, desorientazioa, jarrera iragarrezina, paranoia eta ezgaitasun psikosozial nabarmena ziren Deterren sintometako batzuk. Alzheimerrek "ahantzuraren gaixotasuna" deitu zion.

Bost urtez egon zen Deter Frankfurteko ospitale psikiatrikoan ingresatuta. Eta psikiatrak eskuz idatzita jaso zuen pazientearen eboluzioa. "Arkatza, boli-grafoa, diru-zorroa, giltzak, egunkaria eta zigarro bat erakutsi dizkiot, eta zuzen identifikatu ditu" idatzi zuen. "*Frau Auguste D.* idatzi behar duenean, *frau* hitza idazten du eta, ondoren, gainerako hitzak errepikatu behar ditugu ahaztu egiten zaizkiolako". Eta aurrerago: "Pazienteak ezin du idazketan aurrera egin eta 'galduta nago' esaten du behin eta berriro".



Ezkerrean, Alois Alzheimer psikiatra; eskuinean, Auguste Deter pazienteak. 1901ean "ahantzuraren gaixotasuna" diagnostikatu zion.

1990eko hamarkadan Frankfurteko ospitale psikiatrikoko zuzendaria Conrad Maurer zen. Maurerrek Alzheimerrek idatzitako eduki guztia aurkitu zuen han. Kasua goitik behera berriro aztertzeak aukera eman zion aurkikuntzak, eta ondorio garbi bat atera zuen: Alzheimerrek erabilitako metodoak eta egindako diagnostikoak guztiz zuzenak ziren; ia mende bat geroago, Maurerrek ez luke ezer aldatuko.

Auguste Deter 1906ko apirilaren 6an hil zen. Alzheimerrek berehala pazientearen garunaren laginak aztertu zituen mikroskopioan eta ikusi zuen kortez zerebrala ohi baino estuagoa zela, atrofiatua zegoela. Aurkitu zituen plaka eta


neurofilamentuak gaixotasuna azaltzeko balio izan zioten. Eta gaur egun oraindik hori jotze da gaixotasunaren kausatzat. Urte horren amaieran, Alemania Hegoaldeko 37. Psikiatria Biltzarrean, kasua xehe xehe azaldu zien kideei. Beste espezialista batek iradoki zion gaixotasun hari bere izena jarri behar ziola.

Alois Alzheimer 1915ean hil zen, 51 urte zituela, jakin gabe Alzheimerren gaixotasunak milioika pertsonari eragingo ziola. Eta jakin gabe, 120 urte geroago demenzia diagnostikatzeko berak erabilitako metodo bertsua erabiliko zela oraindik. Paziente bakarra behar izan zuen bere izena luzaroan oroitu zedin ahantzurari lotuta. ●

10.000 urteko harresia

Mecklenburgeko golkoan, Baltikoko uretan, ia kilometro bateko harrizko egitura bat identifikatu zuten arkeologoek 2021ean. Orain diziplinarteko ikerlari talde batek harresiari buruzko ikerketa argitaratu du *PNAS* aldizkarian. Egiturak 10.000 urte inguru ditu eta gizakiak egin dela ondorioztatu dute. Europa iparraldean ez da garai horretako an-

tzeko egiturarik topatu eta eremu horretako komunitate ehiztari-biltzaileei buruzko informazio berria ekar dezake aurkikuntzak. Baina, alderatzeko beste adibiderik ezean, adituentzat zaila da egituraren funtzioari buruzko interpretazioak egitea. Hala ere, lehen hipotesi bat bota dute: ehiza eremua mugatzen zuen hesia izan liteke. ●



MICHAL GRABOWSKY / KYEL UNIVERSITY

ATZAR HADI PROIEKTUA

Errobi eta 1970ak omentzeko musika proposamena

1970eko hamarkada oso garai bizi eta emankorra izan zela konturatzeko informazioa eskaintzen du *Atzar hadi* musika proposamenak, baita euskal rockaren hastapenez oroitzeko parada eskaini ere. Frankismoaren amaiera, Txiki eta Otaegiren fusilamenduak, ikastolen sorrera, Txileko gertaerak... Garaikoa da Errobi taldea. Haien kantuak testuinguruan kokatuta eskaini ditu Xabi Peryk bultzatutako musika proposamenak. Iazko maiatzean Miarritzeko Atabalen aurkeztu ondotik, lehen emanaldia egin dute Gipuzkoan, Hernani eta Astigarraga arteko Oialume biltokian.

 PATXI GAZTELUMENDI

Sarako trinketean Xabi Pery eta Jojo Bordagarairekin hitzordua egin, eta musikaz hizketan hastea dena da bat. Aspaldiko oroitzapenei buruz ari garela, egungo kontzertuen proposamenak horman zintzilik daude trinketeko ostatuan. Saran sortua da Pery musikaria, eta Amikuzetik jina elkarrizketara Bordagarai kantaria.

“Marokora oporretara joan nintzen duela bi urte, eta itzulitakoan gaizki nintzen. Ezin nuen oinez egin, ezin ohetik jaiki. Bi hilabetez egon nintzen horrela, eta hamar bat kilo galdu nituen”, gogoratzen eta kontatzen hasi da Pery. “Medikuek ez zuten asmatzen zer neukan, ezta nik ere. Azterketak, pisua galtzen jarraitu, arrangura, eta bizitza bera jokoan dela uste duzu une batez. Galdera bat egin nion ene buruari: ‘Zer da bizitzan egiteko daukazun hori?’ Bizitza honetan Errobi eskertu nahi nuen, beraiek gabe ez nintzatekeelako sekula

musikari izanen”. Estimua berezia dio Errobiri: “Hemen bizi izan naiz beti; 10 urte nituenean, ardiak eta bonetak baino ez nituen ikusi. Errobi ezagutu eta zerbait aldatu zen ene bizitzan, euskaraz abesturik, sekulakoa izan zen niretzat”.

Bi hilabeteren ostean, gibel barenan mikrobio tropikala zuela jabetu ziren medikuak, gibelari eragiten ziona. Behin gaitza aurkitzean, bizkor sendatu zen. “Baina ene asmo horrek hor jarraitzen zuen, zerbait egin nahi nuen eta lantzen hasi nintzen”. Esan bakarrik ez; sendatu bezain fite, musikariak biltzen hasi zen.

“Musikari zerrenda bat banuen, oso musikari onak, baina batzuk ezagutu ere ez nituen egiten. Banan-banan deitzen hasi, eta denek baiezkoa eman zidaten. Ideia ona iruditu zitzaien Errobiren kantuak hartu eta taldea eta 1970eko giroa omentzea” azaldu du apal-apal.

Aurretik, Mixel Ducau eta Anje Duhalde ere deitu zituen –Errobiren bi zutabeak–, beraiek proiektua aurretik ezagutzea nahi zuelako: “Mixel etxera etorri zen, dena aurkeztu nion, ordubete baino gehiago hizketan aritu ginen, eta horrela agurtu ginen. Arratsalde berean deitu nion Duhalderi. Zalantzak agertu zituen, baina egin nahi banuen, egiteko erran zidan. Berak ez balu ongi ikusi, ez nuen *Atzar hadi* martxan jarriko”.

MUSIKARIAK HAUTATZEN

“Grabazio estudioa nuenean ezagutu nuen Bordagarai, eta banekien bere ahotsa ondo moldatuko zela Errobiren kantuekin. Mikel Artieda, berriz, ezagutzen dugun baxu jolerik onena da dudarik gabe. Patrick ere, bateria jotzen duena, saratarra da, eta txikitatik ezagutzen dugu elkar. Umetan sortu genuen gure lehen rock taldea, pentsa. Zazpiak bat dantza taldearen entsegu lokalean aritzen ginen gu ere. Xabi Al-



OIALUMEKO KONTZERTUA. JOSU AR TOLA

bistur, gitarra akustikoan, oso-oso ona. Teklalaririk ez nuen ezagutzen, baina topatu dugun Javier Perez de Azpeitia izugarria iruditzen zait”.

Bordagaraik ere ondo atxikitzen du memorian Peryren deia jasotzean zer pentsatu zuen: “2022ko uztaila zen, bere ideia azaldu zidan, Errobi taldea omentzeko talde bat muntatu nahi zuela. Baietz erran nion. Errobi taldearekin handitu bainaiz, etxean entzun ditut beti, eta ez nuen zuzenean entzuteko aukera izan. Gauza bera erran nien Anje eta Mixeli, telefonoz”.

Musikarien baietza lortuta, lanean jarri ziren. “Abestiak hautatu genituen lehenbizi: lehen bi diskoetakoak denak, hirugarren lana zuzeneko da, eta azken diskoan, abestiak ordu laurdenetik gorakoak dira; beste bide bat dago hor”.

50 URTE DITUZTEN ABESTIEN KONPONKETAK

1973. urtean sortu zen Errobi taldea,

eta oso denbora laburrean bi disko plazaratu zituzten. Lehenbizikoa *Errobi*, 1975ean, eta *Gure lekukotasuna* gero, handik bi urtera.

Nola prestatzen dira duela 50 urteko abestiak gaurko egunean jotzeko? Bizkor erantzun du Peryk: “Lehenbizi diskoak berriz entzun, eta musikari bakoitzak bere parte etxean landu behar du. Hasieran notaz nota, abestiak diskoan agertu bezala egitea pentsatu genuen, baina oso zaila zela konturatu ginen berehala. Mixel Ducauren jotzeko modua eta Anje Duhalderen abesteko gaitasuna ezin dira jarraitu. Bakoitzak dakien moduan moldatu ditu kantuak, eta lasaigo aritu gara”.

Bordagaraik bere metodoa azaldu du: Youtubetik eta beste plataforma batzuetatik abestien zerrenda sortu eta etengabe entzun ditu. Duhalde eta Ducau kantuz nola ari ziren ondo behatzen aritu da; aitortu du hobe moldatu dela arrangoiztarraren moldean, Ducaure-

nean baino. “Egiteko gisan ikusi nuen nire burua. Ez notaz nota, baina erronka bezala hartu nuen, eta lotu nintzaion lanari. Gure pertsonalitatea eman diogula iruditzen zait”.

Berarekin batera beste abeslari bana izan du Miarritzeko eta Astigarragako kontzertuetan: Patxi Amulet aritu zen Miarritzen –600 lagun baino gehiago egon ziren emanaldi horretan–, eta Patxi Etxeberrik kantatu du Astigarragan.

FRANCO HIL OSTEAN, ERROBI ITZULI DA GIPUZKOARA

Entsegu gehiago egin, eta urte berriarekin batera, promozioan aritu ziren. Hego Euskal Herriko irrati eta hedabideetan elkarrizketak eskaini, eta jendearen artean ezezaguna den proposamena izan arren, jende andana bildu zuten sagardotegi giroko asteburuan: “Garaian musika hau debekatua zen Hego Euskal Herrian, eta 50 urteren buruan, Franco aspaldi hil ostean, Erro-

1970ean, Baionan, protesta antifrankista.



Gose greba bat elizaren atarian, Gabonetan.

DANIEL VELEZ



biren doinuak itzuli dira Oialumera ere; oso garrantzitsua izan da guretzat”.

Bordagarai luzaz ibili zen Ramuntxorekin kantuan, baina batez ere Lapurdi eta barnealdeko plazak eta aretoak zituzten girotzen: “Oialume ez nuen ezagutzen, eta sagardotegia izanik bitxia da. Historiaz betetako leku mitiko bat, gogoia nuen bertan egoteko eta Hegoaldeko publikoarekin gurutzatzeko berriz”. Kontent eginiko emanaldiarekin eta izandako giro ederrarekin.

Bordagarai aitortu du, musika estiloari dagokionean, bera gehiago folkari loturik egon dela: “Errobi rocka da, baina ez soilik rocka”. Eta albotik Peryk zehaztapena egin dio: “Errobiren abesti guztiak gitarra akustiko batekin jo daitezke”. Eta horretan bat datoz biak.

Eta jarraian, beste gogoeta luzatu du Peryk: “Errobiren musika jo eta entzuteak bere zentzua du giro batera atxikirik. *Telebista* abestia jo dezake plazako talde batek herriko jaietan, eta ongi dago, baina zentzu guztia bere testuinguruan hartzen du, horregatik garrantzia berezia eman diogu 1970eko hamarkadako kokapenari”.

Hortik aurrera, proiektua egokitu eta aldatu daitekeela dio Peryk: “Errobirena egin dugun bezala, garai horretako beste talde batzuk eta beraien abestiak sartu daitezke garai horretan, Itoiz edota Guk”.

Estradizioak salatzen manifestazioa, Baionan.



“MEREZI IZAN DU”

Bistan denez, Errobi baino harago doan omenaldia da Atzar hadi: “Ireki egin dugu proposamena; 1970eko hamarkada oroitarazteko, bizi zutenek berriz gogoratzeko, eta ezagutu ez dutenentzat ikasgai bat da”.

“Oso pozik gaude egin dugunarekin. Musika bizitza da. Musika bizi behar da. Eta proiektuak egitea beti da ederra”, adierazi du baikor Pery saratarrak: “Nik Itoiz taldearekin bizi izan nuen. Prozesu artistikoa zinez ederra da, eta zuzenean jotzea ere bai. Eta abentura hau ederra izan da. Zuzenean jotzea eta historia kontatzea”. Errobik merezi izan du horrenbeste. ●

OHARRA: Argia.eus-en, erreportajearekin batera, entzungai daukazu Atzar Hadi-k grabatutako *Gure lekukotasuna* abestia, jatorriz Errobirena dena.

“Find the cost of freedom”

Bernard Tavitian Errobiren azken ekoizletako batekin ere hitz egin zuen Peryk, eta proiektua azaldu zionean, berak kontatu zion nola Errobik Steven Stillsen abesti baten bertsioa egiten zuen amaieran: *Find the cost of freedom*. Zorigaitzez, Peryk berarekin hitz egin eta hamabost egunetara zendu zen Tavitian ekoizlea.

“Hitzak ingelesez hartu eta bertsioa prestatu zuen Jojok, eta *Askatasun sari* deitu zion”, dio Peryk. Bi emanaldietan abesti horrekin amaitu dituzte kantaldiak. “Ezusteko handia izan da guretzat, baita publikoarentzat ere. Ez dago diskoetan, baina garaiko giroa biltzen du. Opari bat da”.

1970eko hamarkada, iruditan

Errobiren musika lantzen hasi ginenean, argi genuen jendea testuinguruan jarri behar genuela, garaiko gertakizun eta aldarrikapenetan”, adierazi dute Peryk eta Bordagaraik.

“Ez da soilik Errobiren musika jotzea, proiektua ireki eta 1970eko hamarkada eta garaiko musika ezagutarazi nahi genuen. Pedagogia apur bat eginez, jende askok garai hori ezagutu ez zuelako”. Eta 1970eko hamarkadako gertaerak –Errobik asko kantuetara ekarriak– gogoratzen hasi dira solasean ari ginela: “Hego Euskal Herrian Franco zegoen, Txileko gertaerak ere biziki garrantzitsuak izan ziren, langile mugimendua, Txiki eta Otaegiren fusilamendua, errefuxiatuak... Beraz, horregatik diogu: soilik Errobiren musika jotzea ez zen aski, ez behintzat guretzat”.

Daniel Landart idazlea izan zen Errobiren kantu gehienen letragilea, eta orain ere hainbat testu sortu ditu, Errobiren garaia historian kokatzeko: “Esaten dena itzuli dugu beste hizkuntza batzuetara, irudiak erakutsi, afixak... QR kodea ere jarri

dugu sarreran, jendea historiara konektatu dadin”.

“Miarritzen konturatu ginen kontzertura etorritako jende askok ez zuela garaia ezagutzen, edota ez dela euskaraz mintzatzen. Kostaldeko jendea, batik bat. Baina behintzat interesa agertu zuten euskal kulturarekiko, eta hurbildu ziren. Guk bizi izan duguna erakutsi nahi izan dugu, xumeki”, zehaztu du Peryk. Eta jarraian Bordagaraik letren gaineko gogoeta egin du: “Landarten testuetan bada beste gai batzuk, telebista adibidez, eta bere profetia gauzatu dela ikusi dugu. Duela 50 urte erraten zituenak gertatu egin dira. Etxebizitzaren afera edo turismoa, adibidez, begira nola gauden”.

Frantxoa Teilagorrik bildutako garaiko afixak agertu dituzte bi kontzertuetan, pantaila handi batean. Landartek idatzitakoei Pantxoa Etxegoienek jarri die boza, eta emanaldietan entzuten dira abestien sarrera gisa, Dani Velezen zuri-beltzeko irudiak tartekatuta. Eta, kantuz kantu, Errobiren eta Euskal Herriaren historia osatzen da kontzertuan.



FRANTXOA TELLAGORRI



Libertimendua, iruindar estiloan

UXUE GUTIERREZ  IRUINKOKOA

Iaz kale egin ondoren, 2024an bueltatu naiz Iruinkokoa ikustera. Sortzaileen-tzat seigarrena izan da aurtengoa, niretzat bigarrena. Estreinakoan ez bezala, aurten badut espektatibarik sortua emanaldiaren bueltan. Ezagutzen ez duenarentzat (duela gutxi arte, niretzat barne), Iruñeko inauteri euskalduna da Iruinkokoa, libertimendu formatuan emana. Dantza, musika, herri antzerkia eta bertsoak uztartzen ditu emanaldiak eta pil-pilean dauden gai lokalei (eta ez hain lokalei) egiten die erreferentzia kontaktizunak. Urteko errepasso satirikoa.

Goizean goiz hasi dira kokoxuriak eta kokobeltzak Iruñeko Alde Zaharrean gora eta behera asaldurak egiten. Kalez kale ibili ondoren, 12:30ean heldu dira kokoxuriak, kokobeltzak, musikariak eta bertsolariak plazara, eta hasi da festa.

Gogoan dut 2022ko emanaldian Hedoi Etxarteren sortaldekoak, Chill Mafia, Kai Nakai, Ernai eta GKS izan zituztela hiz-

pide, besteak beste. Aurtengoa, berriz, politikangintza instituzionalak hartu du pisua. Nafarroako egoerak eman du zeresana azkenaldian eta Ameriketako Estatu Batuetako institutuetan egiten diren ikasturte amaierako dantzaldia bailitzan irudikatu dute. Txibite *quarterback*-ak nor aukeratuko du dantzaldira joateko? Zurekin Nafarroako kideak noraezean dabilta, Asiron neskatoari lerdea dario Txibite ikusten duen bakoitzean eta inguruan dabilta Ibarrola, Caballero eta Euskal Herriko Kontseilu Sozialista ere bai.

Kontakizun horrekin barre algarak sortuta, lekua egin diete Sarai Robles eta Sustrai Colinaren bertsoaldiei. Segidan bueltatu dira kokoxuriak dantzara, eta horrela osatu dute hiruki segida lauzpabost aldiz protagonistek. Satirarekin segituta, Palestinarekiko elkartasuna eta kontraesanak azaleratu dituzte kokobeltzek. Zein da manifestazio egokia? Bilbokoa, Donostiako ala Iruñekoa? Argi

IRUINKOKOA

NOIZ: otsailaren 11n.

NON: Iruñeko Alde Zaharreko kaleetan.

borobildu du Sarai Roblesek: “Gu hobeto sentitzeko modua besterik ez da”. Eta puntu.

Gai zerrenda luzea jorratu dute antzezleek: 5G-a, Euskal Herriko Topagune Sozialistaren baimen eskaera, LABako alkoholik gabeko garagardoak, anarkisten desagerpena... Eta, noski, Jon Maia. Eta, jakina, Nafarroako kanpinak ‘inbaditzera’ doazen gipuzkoarrei egur pixka bat. Ia bi orduko emanaldia osatu dute, eta bukaeran borobilean jauziak dantzatu dituzte kokoxuriek eta ikusleetako askok (hor nabaritu da nortzuk diren iruindarrak eta nortzuk garen kanpotarrak).

Oxala Iruinkokoa Euskal Herriko txoko guztietan sortzeko aukera, konpromisoa eta ausardia izango bagenu. Iruinkoak erakusten digu gure buruari barre egitea sendagarria eta beharrezkoa dela. Kritika, autokritika, dibertimendua eta herrigintza. Iruinkoko gehiago behar ditu Euskal Herriak. ●



LIBURUA

Emariari idatzitakoak



HITZEN LIHOA

JAUSIZ

ALAIN MENDIZABAL DIAZ

1545 ARGIALETXEA, 2023

MADDI GALDOS ARETA

Itxuraz tente eusteari utzi eta behea jotzea zail egiten zaigu, grabitate indarrak zein soinean daramagunaren zamak lurrera erakarri arren. Hondoarekin topatzea, ordea, denbora kontua ei da. Zaugarri denaren aitortzaren emaitzat aurkeztu ditu Alain Mendizabal Diazek (Oiartzun, 1997) *Jausiz* (1545 Argialetxea, 2023) liburuan bildutako poemak. Orain arte hainbat musika proiektutan aritua da, eta ibilbide horretan beti izan du hitza bidaide. Hauxe da, ordea, argitaratu duen lehen poema bilduma, betazal ertzetatik abiatu eta itsasoraino garamatzana.

Atal ezberdinetan banatutako hemeziretzi poema eta epilogo den *Bitakora* bat biltzeaz gain, herrikide dituen Amaia Belaunzaran Sanz, Ekhone Irazusta Aro-

zena eta Karen Muñoz Etxebeste artisten hainbat ilustraziok ere osatzen dute artefaktua. Oro har, gorputzari, lurrari eta urari loturiko iruditegia gailentzen da orriotan, baita, nolabait esatearren, bere buruari begiratuta harago joan nahian den ni poetikoa ere: izan ispilu aurrean dena edo parekoei erreparatzen diena. Bide horretan ugariak dira poemek dakarzkiguten gaiak, baina bereziki aipagarri dira erorketa edo negarra bera hizpide dutenak eta, horrenbestez, nolabaiteko mina darienak. Halaber, atentzioa ematen dute *ni* poetikoa izatez pertsona ez den bigarren pertsona bati zuzentzen zaion poemek. *Emari* olerkia, besteak beste, horren eta arestian aipatutako zaugarritasunaren aitortzaren adibide dela esan genezake: “Beldur naiz

zure ondorioez, / soinean dakartzazun olatu harroez”, diotse malkoei.

Halere, gaineratzekoa da hitzok ez direla erorketaren kontaketa soil. Nabigazioaren nondik norakoak biltzen dituen *Bitakora* ataleko mareen dogmak eta aingurak baliatuta, liburua biltzen eta biribiltzen duen zentzua aitortzen baita: hots, jopuntuan maskulinitatearen azterketa jartzen dela ere esan genezake, baita honekiko disekzio zorrotza egiten dela ere. Gauzak horrela, aurretiaz marraztutako bideei jarraitzeari utzi eta bestetuk probatzeko gonbita da oiar-tzuarrena: “Koordenadarik gabeko norabidea hartu dugu, / itsasoa atzean utziz / ibai berrien bila”. Mapa zaharrak baztertu eta bide berriak marrazteko gonbita, alegia. ●



MUSIKA

Eguzkierripako 'outlaw'-ak



MIKEL SERRATO



OVER THE RED LIGHT THE CLAYTON

AUTOEKOIZPENA, 2023

IKER BARANDIARAN

Aramaioko (Araba) talde honek arreta deitu zuen Arrasate inguruan 2019an, oso gaztetxoak zirela jotzen hasi eta Los Clayton izenpean maketa rockeroa kaleratu zutenean. Zuzeneko ikusgarriak, musikari oso finak eta abesten eroso aritzeaz gain, agertokian zer egin dakien *frontman*-a.

Gerora, pandemia erdian Martin L. Guevara-ren Silver estudioan *Phoenix* izeneko lan luzea grabatu eta argitara eman zuten: dotorea, indartsua, rockaren bueltan estilo eta eskola desberdinak arakatu eta azaleratzen zituena; horietako asko izerditsiak eta senti- tuak, jakina.

Horren ostean, Danbaka Debagoiene-ko musika lehiaketaren bosgarren edi-

zioan, lehiaketako lehen saria eskuratu zuten; eta, ondorioz, honako diskoaren grabazioa erraztu. Oraingoan Zestoara jo dute Eñaut Gaztañagarengana, grabatu, nahastu eta masterizatzen. Eta berehala bueltan dira agertokietan, haien esentzian, honako lanarekin besopean.

Phoenix-ek bazituen horren zantzu batzuk eta oraingoan sustraietako doinu amerikarreen egin nahi izan dute geldiuene gozagarri bat. Hala, *Gose dira* soinu amerikarreko eta gorputz sendoko kantua da, tenpo erdiekin ere jolas- tu eta tarteka gitarrak erotzen dituen. *Inertzia*, berriz, biziagoa, azkarragoa eta jostariagoa da. Erritmo biziko rock-and-roll bizi eta itsaskorra. *N-260* are eta amerikaragoa da, blues-arekin ere

ligatzen duena –a zer gitarra riffak eta zer emaitza borobila!–. *Euripean* kantutzarra da: Idoia Tapia lagun dutela Ameriketako sustraietatik edan eta Eskin Kristorekin txikiteoa egin ostean pop-rockari enbidiarik ez dion pieza ia epiko eta sentikorra –portzierto, adi kantu honen bideoklipari!–. *Let loose*-ek ere txunditu nau, pub-rock hezurdura badu ere, arropa rockeroago jantzi eta tenpo erdiak barne borobilduta dagoe- lako. *Buffalo*-n agerian uzten dute gutxirekin asko esan daitekeela, jotzearen gozamena transmititzen dute-eta. *Light me up* da rock-and-roll bizi-bizia. Eta, azkenik, *Aingurarik ez* rock maltzurra, Kaliforniako melodiak eta Euskal rocka batzen dituen akaberako pieza. ●

Euskal literatura eskas, masibo eta artifizialki ekoiztuaren alde-edo

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Egun on emanaldi hau jarraitzen ari zareten guztioi: gaur “Dena dabil nire burmuinak prozesatu dezakeena baino azkarrago” programan, aulkitik kanka bota ondoren “ufa, ufa, ufa” esaten jarri nauen berri batekin hasiko gara. *Xataka* teknoalbisteen webgunearen arabera, Amazonek erabaki drastikoa hartu behar izan du adimen artifizialez “idatzitako” liburuen uholdearen aurrean: horrelako produktuen “egileei” muga jarri die, ez dezaten merkatua gainekatu robotikoki idatzitako obrek.

Datua: eguneko hiru liburu kargatu ahalko dituzte “idazleek” gehienez hemendik aurrera. Hiru liburu berri. Egunean. Hori da murrizketa hori. Aurretik tope altuagoa omen zeukan den-den-dena salgai daukan atariak, baina ez dute esan nahi izan kopurua –eta beraz, imajina dezakezu zenbat eta zenbat liburu berri jarri diren salgai azkenaldian mota horretako tresnak erabiliz “idatzi” ondoren–.

Pentsa dezakezu: “Bah, nik inoiz ez nuke horrelako zaborrik erosiko, hori baino kriterio gehiago badaukat”. Izan ere, nik gauza bera pentsatu nuen hasieran. Baina gero Marx eta Engelsekin akordatu nintzen, konkretuki *Ideologia alemaniarra*-ren irakurketatik geratu zitzaizdan esaldietako batekin: “Kontzientziak ez du bizitza determinatzen, baizik bizitzak determinatzen du kontzientzia”. Alegia, gure bizardun gogokenek seinlatu zigutenari jarraituz, zu ez zara linbo indeterminatu batean flotatzen ari den irakurle bat, beste faktore askoren artean ezagutzen duzun industria editorialak ere bihurtu zaitu “kriteriodun irakurle” –bide batez, kontua serio hartuz gero, ezin eutsizkoa da tamaina horretako buruirutzita-



sunaren aurrean ateratzen den algará-. Industria horren ekoizpen-ereduan teknologia “disruptiboek” –nori entzun diot nik eufemismo hori?– eragin dezaket triskantzak transformatu du guztion “kriterioa” ere.

Nola? Amigo, orakulu bila bazabiltza, zoaz Delfosera. Hori bai, bururatzten zait kontu honek behin betiko ebatzita utziko duela auzi bat zeina, panazko arropa bezala, beti bueltatzen baita gure kulturaren foro, agora eta bestelako gezurmendietara: kalitate eskaseko eta bokazio masiboko euskarazko produkzio kulturalaren premia aldarrikatu izan dute tartean behin zenbait ahots kualifikatuk gurean eta, esango nuke, pasa dela burua estutzen ibiltzeko garaia –ohiko bideetatik hori nola gauzagarri egin eta abar galdezka aritzekoa, alegia–.

Espekulazioak alde batera utzita “orain da zure garaia!” aldarri egiteko unea da. Ekiteko garaia. Bot-ak janzteko momentua. Literaturan

behintzat, jada ez baitago oztoporik ChatGPTrekin egindako liburuak kopuru industrialean erruteko, merkatua lehertzeraino. Eta bai, badakit ze bainarekin etorriko den baten bat: “Eske ChatGPTk euskaraz akats pila bat egiten du”. Bide motza du kritika horrek ordea, izan ere, azken urteotan asko aurreratu dugu euskaraz gaizki idaztearen aldeko lan ideologikoan. Gainera, hizkuntzari ostikoka ez aritzeko mandamendu hori hain da Ilustrazio garaikoa. Teknofeudalismoak beste espiritu bat eskatzen digu: deliberatuki erdipurdikoa, txarra eta txarrisimoa dena behingoz besarkatzea.

Probatzea da kontua. Zeren horrela ere jendeak ez balitu euskarazko liburuak gehixeago irakurriko, ba gutxienez problema beste nonbait dagoela enpirikoki frogatuta geratuko litzateke. Eta jakingo genuke tipo horretako debateak berriz planteatuko direnean, denbora alferrik galtzeko plazer hutsagatik izango dela. ●



HIZKI PIZTI

Ikas dezagun irakurtzen eta idazten

Jolasaren bitartez irakurtzen eta idazten ikasteko **material pedagogikoa**.

Bai ikaskuntza-irakaskuntzan, bai etxeetan erabili daitekeena.

Alfabetoko hizki bakoitzak eta hortaz soinu bakoitzak **Euskal Herriko animalia bat** irudikatzen du.



30€

Bidalketa gastuak 5€.
Bidalketa doan 40€-tik gorako erosketetan.

Kaxa barruan aurkituko dituzu:

Karta handiak: Hizkia larriz eta xehez aurkezteko, animalia irudiari eta haren izenari lotuta.

Karta txikiak: Umeek manipulatu, erabiltzeko eta jolasen bidez hitzak osatzeko.

Laburpen-karta: Kontsultarako, animalia guztien irudiak, izenak, taldeak eta dagozkien hizkiak.

Posterra: Animalia guztien bilduma, dagozkien hizkiekin aldamenean.

Bideoak eta webgunea: Hizkien ahozketasuna lantzeko, karta bakoitzari lotutako ipuin, kanta, olerki, bertso, kontakizun, aho-korapilo, esamolde eta antzerakoen ikus-entzunezkoak webgunean eskuragarri.

Liburuxka eta jolasak: Materialaren argibideak emateaz gain, hainbat jolas proposatzen ditugu karta txikien bidez irakurketa eta idazketa lantzeko. Memoria, azkartasuna, arreta, irudimena, analisisa, kooperazioa, hiztegia... garatzeko jolasak.

Egileak: Amaia Egidazu, Iñaki Sanz-Azkue, Lore Erriondo eta Eñaut Aiertzagüena.



Garuna(K)

ERAKUSKETA | SAN TELMO MUSEOA
2023.12.16 - 2024.04.14

Antolatzailea:

STM
San Telmo Museoa



DK
donostia
kultura

Museoaren erakunde babesleak:



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Foruak, Legebiltzarra, Eskualdeko
eta Auzo Departamentua



**ETORKIZUNA
ORAIN**

San Telmo Museoa antolatutako
erakusketa. Centre de Cultura
Contemporània, Barcelona; Fundación
Telefónica, Madril; eta Wellcome
Collection, London-en arteko elkarlana.

Ondorengo proiektua:

CCCB Centre de Cultura
Contemporània
de Barcelona

**Fundación
Telefónica**

**wellcome
collection**

**MINISTERIO
DE CIENCIA, INNOVACIÓN
Y UNIVERSIDADES**

Santiago Ramón y Cajal ikerketa urtea.

**AÑO
CAJAL**
Estamos hechos de ciencia